

1937ko Gernikar belaunaldia Britainia Handian:

Euskal diaspora baliabide pedagogiko gisa

erabiltzeko proposamena

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Bumstead Díaz, Adam.

ZUZENDARIA: Arregi Orue, Joseba Iñaki

2024

Laburpena:

Egun bizi dugun mundu globalizatu honetan, migrazioak eta diasporak etengabe gertatzen diren fenomenoak dira, non, hainbat arrazoi kontuan harturik, herri baten zati handi batek ihes egiten duen bere jaioterritik, baina oraindik ere bere herriarekiko sustraitua egonik. Diaspora kasuak, zuzenki, eskolan jorratzeko gaiak bilakatzea berezko erronka bat da irakasleontzat, bai munduaren ulerkera hobeago bat izateko, bai eta aniztasunarekiko errepetua eta elkarreragina bilatzeko eta bazterkeria-kasuak ukatzeko.

Etiketetik hasita, beraz, euskal diasporen kasuak estudiatzea oso baliagarriak izan daitezke lehen hezkuntzako eskolan, ez soilik gure historiaz ikasteko, baizik eta gaur egungo munduaz ikasteko Euskal Herriaren historia eta esperiantziatik abiatuta.

Euskal diaspora batzuk andana ikertu badira ere, beste kasu batzuk ilunpean geratu dira azken urteotan. Horren adibide dira Espainiako gerra zibilean Santurtziko portutik Southampton-eko portura ihes egin zuten 4.000 bat ume, 95 irakasle eta hainbat laguntzaile eta apaizena. Britainia Handiak bere historian jasotako haur kopuru handiena hartu zuen lehenik North Stoneham-eko kanpamentuan eta, jarraian, herrialde osoko kolonia desberdinetan. Lan honen helburua da, beraz, euskal diaspora kasu honen ikerketa bat egitea, eta geroantzean bere aplikazioa burutzea LHN curriculum berriak markatzen dituen lerro berriei moldatze aldera.

Resumen:

En el mundo globalizado en el que vivimos, las migraciones y las diásporas son fenómenos que suceden constantemente, en los que, por diversas razones, gran parte de un pueblo se escapa de su tierra natal, pero todavía está arraigado con su pueblo. La transformación de los casos de la diáspora en temas de estudio en la escuela es un reto para el profesorado, tanto para una mejor comprensión del mundo, como para convertirse en un ejemplo de compromiso e interacción con la diversidad y hacer frente a los casos de exclusión.

Por lo tanto, estudiar los casos de las diásporas vascas puede ser muy útil en la educación primaria, no sólo para aprender de nuestra historia, sino para aprender del mundo actual a partir de la historia y la experiencia de Euskal Herria.

Aunque se han investigado numerosas diásporas vascas en los últimos años, otros casos han quedado en la oscuridad. Ejemplo de ello son los cerca de 4.000 niños, 95 profesores y varios ayudantes y sacerdotes que huyeron del puerto de Santurtzi en la guerra civil española al puerto de Southampton. Gran Bretaña acogió el mayor número de niños de su

historia en el campamento de North Stoneham y, a continuación, en diversas colonias de todo el país. El objetivo de este trabajo es, por tanto, realizar un estudio de este caso de la diáspora vasca y, posteriormente, llevar a cabo su aplicación mediante una intervención en un aula de educación primaria guiada por el nuevo currículum.

Summary:

In the globalised world in which we live, migrations and diasporas are a constantly occurring phenomena, where, for various reasons, large parts of a people leave their homeland, but are still rooted both with their people and homeland. Transforming diaspora cases into topics of study in school is a challenge for teachers, both for a better understanding of the world, but also to become an example of engagement and interaction with diversity and to address cases of exclusion.

Therefore, studying the cases of Basque diasporas can be very useful in primary education, not only to learn about our history, but also to learn about the world today from the history and experience of the Basque Country

Although numerous Basque diasporas have been researched in recent years, other cases have remained under-examined. An example of this is the nearly 4,000 children, 95 teachers and several assistants and priests who fled from the port of Santurtzi during the Spanish Civil War to the port of Southampton. Great Britain took in the largest number of children in its history in the North Stoneham camp and then in various colonies throughout the country. The aim of this work is, therefore, to carry out a study of this case of the Basque diaspora and, subsequently, to carry out its application through an intervention in a primary school classroom guided by the new curriculum.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	5
2. GAIAREN GARRANTZIA GAUR EGUN.....	6
3. DIASPORAREN KONTZEPTUA ETA TERMINOLOGIA.....	8
3.1 Euskal diasporaren erakartze eta kanporatze faktoreak.....	9
3.2 Kasu honetarako terminologia egoki baten bila.....	11
4. MARKO TEORIKOA: 1937KO GERNIKAR BELAUNALDIA BRITAINIA HANDIAN.....	13
4.1 Gerra Zibilaren testuinguraketa.....	13
4.2 Gernika. Ikur unibertsal baten hasiera.....	15
4.3 Britainia Handia eta gerra zibila.....	16
4.4 Ebakuazioen antolaketa.....	18
4.4.1 Laguntza antolakundeak, Leah Manning eta autoritate britainiarrak.....	18
4.4.2 Eusko Jaurlaritzaren papera.....	21
4.4.3 Haurren inskripzioa.....	21
4.4.4 Irakasleen, laguntzaileen eta apaizen inskripzioa.....	22
4.4.5 La Habana, itsasontzi baten Euzkaditik kanpora.....	23
4.5 North Stoneham-eko kanpamentua.....	25
4.6 Hezkuntza esperientzia eta dispertsaketa kolonietara.....	28
4.6.1 Baliabide pedagogikoekin eta maistrekin arazoak.....	28
4.6.2 Dispertsaketa kolonietara.....	31
4.6.3 Hezkuntza esperientzia: aipamen garrantzitsuenak.....	32
5. IKERKETAREN HELBURUAK.....	35
6. METODOA.....	36
7 ESKU-HARTZEA.....	36
7.1 Esku-hartzearen justifikazioa.....	36
7.2 Esku hartzearen helburuak.....	38
7.3 Esku-hartzearen programazioa.....	39
7.4 Esku-hartzearen garapena.....	39
8. ESKU-HARTZEAREN EMAITZAK.....	41
9. ONDORIOAK.....	42
10. MUGAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK.....	42
11. BIBLIOGRAFIA.....	43
12. IRUDI BILDUMA.....	47
13. ERANSKINAK.....	54

1. SARRERA

“Garaiz hurbil baina ezagutzaz urruti, honela da euskal erbesteratuen historia eta kultura” zioten *Hirurogei urte geroago, Euskal erbestearen kultura* liburuko antolatzaileek (Apaolaza *et al*, 2000, 14.or.). Finean, horrela defini genitzazke euskal diasporaren hainbat kasu. Hori horrela, historian zehar lurralde honek erbestean izan duen garapenaren kasu asko zeharo aztertuak izan dira, hala nola Idaho-ko euskal diaspora (Bieter, 2005) edota gudaroste karlistetako euskal diasporak (Totoricaguena, 2015). Beste batzuk, kontrara, ez dira horiek bezain beste aztertu. Kasu hauen azterketan gehien bat historialari, antropologo eta kazetariak nagusitu egin dira eta honen adibidea da Eusko Jaurlaritzak sustaturiko Urazandi bilduma. Inork gutxik heldu dio gai honi hezkuntzaren ikuspegitik eta honen ildotik egindakoak oso urriak dira. Gabezi honekin amaitzeko saiakeran datza, hain zuen ere, lan honen originaltasuna eta ekarpena.

Ondotik, Gradu Amaierako Lanaren gai orokorra hautatu nuenean, hots, euskal diaspora, ardura gisa hartu nuen nire jatorriarekin zer ikusia zuen gai zehatz batean zentratzea. Britainia Handitik erbesteratuak izan ziren gurasoen seme ingeles eta euskalduna izanik, bi herri hauen arteko diaspora kasu garrantzitsuena hautatu nuen hasieratik. Espainiar gerra zibilean, Santurtziko portutik Southampton-eko portura joan ziren 4.000 bat euskal haurren ihesaldi ala erbesteratzeari buruz ari naiz, zehazki. Euskal diaspora eta hezkuntza bateratzeko intentzioa harturik, beraz, premiazkoa da espedizio honen nondik norakoak jakitea, euskal haurren esperientzia gazi-gozoa ikertzea eta haiekin joan ziren maistra eta laguntzaileen eginkizuna azpimarratzea. Ondoren, jakintza hau lehen hezkuntzako klasera ekarriko nuke, bertan, esku-hartzea gai honi buruz egin nuelako. Hortaz, atal honetan zati garrantzitsu bat hartuko du kasu honen erabilerak lehen hezkuntzako baliabide pedagogiko gisa.

Beraz, gaiaren garrantzia azpimarratu ondoren, lan honi marko teoriko zabal batek emango dio hasiera. Bertan, lehenik diaspora kontzeptuaren eta euskal diasporaren zehaztasun batzuk emango dira, kasu zehatz honen terminologiak jarraituta. Ondoren, gerraren testuinguraketa laburra egingo da, erbesteratze honen zergatiak jakiteko. Espedizioaren antolaketari dagozkion hainbat xehetasun emango dira, espedizioan bertan sakondu aurretik. Zuzenean, beraz, espedizioa eta bertan bizitako hezkuntza-esperientziak azalduko dira, esku-hartzean sartu aurretik; hau baita, finean, gaia lantzearen funtsa.

Ondoren, Gasteizko P.I. Barrutia eskolan egindako Practicum III-an burututako esku-hartze berritzaile eta originala azalduko da, aurretik aipatutako ikerketan oinarrituriko ekimen

didaktiko berritzaileko esku-hartzea izan zelako. Esku-hartzeak dituen helburuak, erabilitako metodologia eta, finean, burututako saioak azalduko dira. Honi amaiera emateko, esku-hartzean jasotako emaitzak aztertuko dira. Azkenik, marko teorikoa eta esku-hartzea barnebiltzen dituen ondorioak aterako dira, historia eta hezkuntza uztartzen dituen lan honi itxiera emateko.

2. GAIAREN GARRANTZIA GAUR EGUN

Errefuxiatuek protagonizaturiko garaiak bizi ditugula argi dago. Errusia Ukrainara indarrez sartu zeneteik, milaka errefuxiatuk hartu dute gorleku Euskal Herria. Bigarren mundu gerra geroztik errefuxiatu krisi handienetariko bat pairatzen ari da Siria, non, iada milioi bat baino siriar gehiagok ihes egin behar izan duten haien herrialdetik. Azken hilabeteetan, baita ere, erasoaldi sutua gauzatzen ari da Israel-go estatu sionista Gaza-ko zerrendan, gaurdaino 40.000 bat zibil hiltzen (tartean 14.000 bat haur) eta izugarrizko gosete bat eraginez Are okerrago, Gaza-ko zerrenda munduko kartzela ireki handiena izanik, behartutako migrazioaren aterabidea ere ez du posible palestinar herriak.

Hitz gutxitan, haien lurraldea exiliatzera behartuta dauden, baina oraindik ere lurraldearekiko lotura duten pertsonen taldeari diasporatuak deritzogu. Diaspora eta migrazio kasu hauekiko hainbat ikuspuntu daude. Europa osoan zehar loratzen ari den ultraeskuinak argi du kasu hauekiko duten ikuspuntua. Italiar lehen ministroa den Melonik, migrantez beterik zihoan Ocean Viking itsasontzia Italiar portu batean lurreratzeko eskubidea deuseztatu zuenean, “bertan ez daude naufragoak, migranteak baizik” esan zuen, berrehun pertsona horien gizatasuna guztiz kenduz. Rishi Sunak, britainiar lehen ministroa, koroatu da migrazioaren aurka ere. Burokratikoki ilegalak ziren migranteak Rwanda herrialdera bidali nahi izan zituen eta, irtenbide hau deuseztatu ziotenean, “Bibby Stockholm” kartzela flotagarria eraiki zuen haren gobernuak, 500 bat migrante giltzaperatzeko. Migrazioaz hitz egitean, baita ere, honakoa esan zuen Sunak-ek: “gure etsaiek ikusiko dute gaitasunik ez dugula horri aurre egiteko, eta, beraz, gero eta gehiago erabiliko dute immigrazioa arma gisa: nahita bultzatuko dute jendea gure kostaldera gure gizarteak ezegonkortzen saiatzeko”. Espainiar estatuan, bestalde, VOX izan da azken urteotan migrazioaren aurka lau haizeetara diskurtso xenofobo eta arrazista hedatu duena; alde batetik, errefuxiatu izaera ukatuta dutenak “Espainiaren etsaiak” direla esanez eta, bestalde, laguntzarik gabeko adingabe atzerritarren (gazteleraz sarritan MENA deituta) aurkako kriminalizazio kanpaina sutsu bat elikatuz.

Diskurtso eta ekintza anti-migratzaile hauek, ordea, ez dira erretorika ultraeskuinean babesten soilik, itxuraz aurrerakoia diren gobernuen posizioak migrazioaren aurrean

zeharo erreakzionarioak bilakatu baitira azken urteotan. Espainiar estatuaren kasuan, esaterako, 2022ko ekainaren 24an, gutxienez 23 hildako eta 77 desagertu utzi zituen Espainiar Goardia Zibilak burututako ekintzak Melillako hesian. Honi buruz, Fernando Grande-Marlaskak, alderdi sozialistakoa den barne-ministroak, esan zuen Goardia Zibilen jokabidea “proportzionala” izan zela, eta hark ez zuela ardurarik asumitu behar tragedia horren aurrean.

Etorkizuneko hezitzaileok, hortaz, eginkizun bat dugu egungo eta iragan gertuko diaspora kasuen aurrean. Oker egingo genuke diskurtso erreakzionario hauek gure eginez, baina hori bezain arriskutsua izango litzake ez ikusiarena egitea kasu hauen aurrean. Kontrara, gure eginkizuna izan beharko litzake diaspora kasu desberdinak estudiatzea, hauen ikasketak ekarpen bat egin dezaten lehen hezkuntzako gelan. Are gehiago, euskaldunok historian zehar errefuxiatuak izan garela gogoratu behar dugu eta, ondorioz, duintasunez eta elkartasunez jokatu behar dugu. Gainera, EAEko curriculum berriak aukera lehia zabaltzen digu horrekalo gaiak tratatzeko, gizarte zientzien lerroen artean egungo erronkak lantzen direlako.

Euskal Herriak, historian zehar, diaspora kasu andana izan ditu, lurralde honen berezitasun etniko, kultural eta linguistikoengatik. Zentzu honetan, hainbesteko gaurkotasuna duen fenomeno honen azterketan, pisuzko garrantzia du ilunean geratu diren hainbat diaspora kasuen ikerketak, hauek baliabide pedagogiko berritzaileetan bilakatu daitezten.

Lan honen helburua eta garapena bide horretatik joango da. Finean, guda zibilean erbesteraturiko euskal haurrak eta irakasleak protagonista dituen kasu zehatz bat aztertuko da, haren arrazoiak eta garapena azalduz, ondoren honetaz baliatzen den baliabide pedagogiko bat proposatuz. Hau da, euskal diasporen kasu gehienetan protagonistak helduak eta bereziki gizonezkoak izan badira ere, kasu zehatz honetan, protagonistak haurrak eta maistrak izan ziren. Berezitasun hau, baita beste hainbat ezaugarri ere, zeharo garrantzitsuak izango dira lan honen garapenean. Azpimarragarria da, lehen aipatu bezala, ikerketa akademikoan gutxi ikertu den kasu batetaz ari garela, are gutxiago euskaraz. Ondotik, kasu historiko honetatik abiatuz, gaur egungo beste diasporekin aplikagarriak diren ondorioak zein ikasketak aterako ditugu.

3. DIASPORAREN KONTZEPTUA ETA TERMINOLOGIA

Diasporaren definizio desberdinak eta terminologiaren erabilerari buruzko edukia plazaratu aurretik, komenigarria litzake migrazioari buruzko definizio orokor bat ematea, ondoren diasporaren kontzeptuarekin alderatzeko.

Migraziorako Erakunde Internazionalak egiten duen migrazioaren definizioa honakoa da: ohiko bizilekutik urruntzen den pertsona edo pertsona-taldea, izan herrialde baten barruan ala nazioarteko muga baten bidez, aldi baterako edo betiko, eta hainbat arrazoiengatik. Zehaztapen asko ematen ez baditu ere definizio honek, erakargarria da hau azaleratzea ondoren plazaratuko diren diasporaren definizio eta kontzeptualizazioak ulertzeko. Azken definizio honek, esaterako, ez du aipatzen herrialde baten barruan ala nazioarteko muga baten bitartez gertatzen diren migrazioen arteko diferentziak. Xehetasunetan sartu gabe, bada, komenigarria litzake aipatzea, kasu honetan, estatuen arteko banaketa politiko-administratiboak zeharo baldintzatzen dituela migrazioak (Ruiz García, 2002, Guzmanek aipatuta, 2005, 1.orr.).

Hala ere, Migraziorako Erakunde Internazionalak migraziorako erabiltzen duen terminoak pertsonen kategoria juridiko ondo definitu batzuk biltzen ditu, hala nola langile migratzaileak; kontrabando-migratzaileak (legalki babestuta ez dauden eta bortizki desplazatutako migratzaileak); bai eta beren egoera edo mugitzeko baliabideak nazioarteko zuzenbidean berariaz zehaztuta ez daudenak ere, hala nola nazioarteko ikasleak. Bide honetan, migrazio terminoa asko aldatu daitekeen termino zabal bat da eta, beraz, definizio asko emateak ez luke datorren edukia argituko.

Akademian, mugaz haratago eta atzerrian bizi baina euren jatorrizko nortasuna mantentzen duten giza-taldeak definitzeko gailendu da diaspora deitura. Diasporaren kontzeptuak, bestalde, ezaugarri oso argi batzuk ditu. Cohen-en arabera (1997, 180.or.), desplazamendu bat diaspora gisa kontsideratzeko honako ezaugarrietako hainbat bete behar ditu:

- Jatorrizko lurraldetik sakabanatzea (sarritan era traumatikoan)
- Lanaren bila mugitzea
- Komertzioa lantzeko edota beste nahi kolonialengatik emigratzea
- Jatorrizko lurraldeari buruzko memoria kolektibo bat edota mito bat eraikitzea
- Ustez antzinakoa den aberriaren idealizazioa garatzea
- Itzulerako mugimenduaren pentsamendua garatzea ala honakoa egitea.
- Denbora luzean iraun duen talde etniko baten kontzientzia handia izatea.
- Harreman gatazkatsuak izan ohi izatea herrialde berriarekin.

- Etnia bereko pertsonekin elkartasun sentimenduak garatzea.
- Harrera-herrialde toleranteetan bizitza desberdina eta aberasgarriaren aukera izatea

Lanaren izenburuan agertzen den kasua azaleratzerakoan, beraz, diaspora hitzaren erabilera egingo da, zeharo garbi geratuko baita kasu hura diaspora kasu bat dela. Bestalde, diasporaren terminoa ez da izango erabiliko den bakarra. Exilio ala erbeste hitza ere erabiliko da honek duen erabilera historiko luzeagatik eta dakartzan inplikazioengatik.

Exilioa ala erbestea, gizabanako baten atzerriratze boluntario edo bortxatua da, arrazoi politikoengatik, normalean. Hala ere, termino honek, historikoki, beste inplikazio batzuk ditu baita ere. Esaterako, exilioak sarritan bertako lurraldearekiko alienazioa dakar. José Ángel Asunce Arrietak (2008, 32.or) ondo azaltzen duen bezala, *“kanporatutako-erbesteratutako subjektuari jatorrizko existentziatik ihes egitarazten zaio (ala gabetzen zaio) (...) Egoera normaletan, zuzenbidez eta logikaz, ez litzaioke bizitza eta historia ukatuko”*. Bide berean, beste gogoeta bat, erbesteratuei buruzkoa, benetako historia pertsonala kontatzearen debekuari buruzkoa da. Eta, aldi berean, erbesteratuak berak jabetzen dira nahi ez den bizitza behartua bizitzen ari direla.

3.1 Euskal diasporaren erakartze eta kanporatze faktoreak

Euskal Herriak historian zehar bizi izan dituen diaspora kasuak ez dira gutxi izan. Izan ere, Euskal Herriaren kokaleku fisikoak (Frantzia eta Espainia artean), bai eta lurralde honek historikoki izan dituen berezitasun etniko, kultural eta linguistikoek erbesteratzeak eragin izan ditu bertako biztanleengan. Hori gutxi balitz, Erdi Aroan, Bizkaiko Golkoko itsas-ekonomiak eta merkataritzak euskal biztanleei bidaiatzea eta beste kultura eta gizarte batzuekin harremanetan jartzea eskatu zien, adibide nagusienak Ternuako eta Eskandinaviako kostaldeak izanik (hauei, beraz, *Pull factor* deituko genioke, hots, lurralde batera errefuxioa erakartzeko arrazoiak) (Barkham 1989; Collins 1986; Caro Baroja, 1971). Gloria P. Totoricaguena autoreak (2015), euskal diasporari buruz zeharo azertu duenak, ondo orokortzen du euskal diasporaren *Push factor*-ak (errefuxiatzeko arrazoi nagusiak) datorren pasartean:

Euskal emigrazioaren kasuan, faktore bultzatzaile nagusiak hauek izan ziren: Amerikako kolonizazio espainiarra eta klerikoen, langile militarren eta kolonietako merkatarien eskaera; aberrian aukera ekonomiko mugatua; Espainiaren eta Frantziaren arteko Euskal Herriaren kokapen fisikoa eta Napoleonen kanpaina militarretarako agertoki gisa erabiltzea; Lehen

Gerra Karlista (1833–39), Bigarren Gerra Karlista (1872); eta Espainiako Gerra Zibila (1936–39). (Totoricaguena, 2015, 55.orr)

Push factor-ei dagokionez, Frantziako Iraultzaren garaian eta ondoren, Euskal Herriko iparraldeko probintziek okupazio militarra izan zuten, eta haien foruak indargabetu egin ziren. Euskaldunei beren lurrak eta azienda kendu zizkieten, eta euskaldun batzuk zigor-kanpalekuetan sartu zituzten funtzionario iraultzaileek (Totoricaguena, 61-62.orr). 1830eko hamarkada inguruan, Iparraldeko euskal agenteak etorkinak biltzen hasi ziren Uruguaira bidaltzeko (lurralde hura segurua zelako euskaldunentzat). Baionatik irten ziren ontzietarako legez kanpoko bidaiarien zerrendetan ageri zenez, 1832 eta 1884 bitartean, 64.227 pertsona joan ziren Pirinio departamentutik, eta 1880ko hamarkadaren amaieran, hiru bidaia-agentzia zeuden Bordelen bakarrik, Euskal Herritik Río de la Platara emigratzeko bereziki lan egiten zutenak (Douglass eta Bilbao, 1975, 122-23.orr). Finean, XIX. mendearen azken erdian Iparraldeko populazioaren hazkunde guztia bertan behera utzi zuen emigrazioak (Jacob, 1994, 46.orr).

Garai berean, Espainiak (eta Euskal Herriak, era berean) bizi izandako gerra karlistek berebiziko garrantzia izan zuten euskaldunen erbesteratzean. Lehen gerra karlista (1833an hasita) amaitu zenerako, laurogei mila bat euskaldunek ihes egin behar izan zuten, gehiengoak Argentina, Uruguai eta Txilera ihes eginik (Bilbao, 1992, 231.orr). Bigarren gerra karlistak ere garapen antzekoa izan zuen euskaldunentzat, nahiz eta bigarren gerrate karlistan euskaldunen diaspora kasuaren datuak zeharo aldatzen diren autore baten hitzetatik bestera. Ez dago aldi horretan euskal emigrazioaren kontabilitate zehatzik, dagokion erregistro-agentzia, Espainiako Nekazaritza Ministerioaren Institutu Geografiko eta Estatistikoa, ez baitzen 1882 arte sortu. Hala ere, Argentinako immigrazioari buruzko 1857 eta 1930 arteko datuen arabera, Espainiako 2.070.874 etorkin iritsi ziren (Moya, 1998, 1.orr). Noski, ezinezkoa da milioika biztanle hauetatik zehazki jakitea zenbat izan ziren euskaldunak. Hala ere, Pérez de Arenaza eta Lasagabasterrek (1991) egindako estimazioaren arabera, 200.000 bat euskaldun izan ziren denboraldi horretan Argentinara ihes egindako euskaldunak. Garrantzitsua da azken zifra hau estimazio gisa definitzea, izan ere, hainbat autoreen arabera gutxi gora-behera 250.000 euskal etorkin zeuden Argentinan 1908an eta 1900. urtean 18.037 bat euskal biztanle Uruguain (Azcona, Muru, García-Albi de Biedma, 1996, 66.orr).

Euskal diasporaren beste kasu garrantzitsu bat Estatu Batuek izan zen. XIX. mendearen erdialdean, hau da, gainontzeko euskal diasporaren kasuek ere garrantzia hartzen joan zirenean, gutxi gora-behera sortu berri zen Estatu Batuek ere hartu zuten euskal emigrazioa.

California-ko estatuan urrea zegoela deskubritu ondoren, Euskal Herrian bizi ziren hainbat euskaldun, baita Hego Amerikan zeuden beste hainbat ere, California-ra egin zuten bidaia, bertan lan egiteko. Bestalde, Nevadako eta Idahoko urre- eta zilar-grebek larritu egin zuten elikagaien beharra, eta euskal herritarrak hasi ziren ganadua hazten (ardiak, batik bat) (Totoricaguena, 2015). Ingeleraren erabilera ez zelako beharrezkoa, euskaldun hainbatek emigratu zuten bertara eta, hitz gutxitan, esan genezake denboraren poderioz Idaho-ko euskal komunitateak errespetu handia jaso zuela bertakoengandik. Diaspora kasu honen historia osoa zehaztasunez eta behar zaion garrantzia emanaz idatzi zuten John Bieter eta Mark Bieter autoreek, “Un legado que perdura: la historia de los vascos en Idaho” izeneko liburuan (Bieter, 2005).

3.2 Kasu honetarako terminologia egoki baten bila

Aztertuko den kasuan zentratuz, ikerketa-lan honetan zehar baliatutako autoreek termino sorta zabal bat erabili izan dute 37ko belaunaldiko euskal erbesteratuak izendatzerako garaian. Termino erabilienak hitz hauen konbinazio baten bidez lortu izan dira: ume edo haur, euskal, ebakuatuak, exiliatuak, erbesteratutakoak, Gernika eta errefuxiatuak. Hitz hauen konbinazioak, sarritan, autoreen bat-etortze bat eragin du termino berberen erabileraz baliatuz gai honi buruzko lanak jorratzerakoan eta, zentzu horretan, eratutako termino erabilienak honakoak izan dira: euskal umeak edo haurrak, gerrako umeak, erbesteratutako haurrak, erbesteratutako belaunaldia, gernikar belaunaldia eta gernikako haurrak (Sabín, 2011). Hala ere, arrazoi desberdinengatik, gerrako ume/haur terminoa ez da erabiliko.

Euskal Herritik haratago, gerra testuinguru hainbatetan “gerrako ume” ala “gerra-ume”(*niños de la guerra* gazteleraz, *war kids* ingeleraz) terminoa erabili izan da. Hala ere, termino anbiguo honen erabilerak, sarritan, eztabaida eta zehaztasun gabeko egoera batera eramanez ahal gaitzake talde sozial bati buruz hitz egiterakoan. Izan ere, gerrako umearen terminoak gerra bat pairatzen duen lurralde bateko ume oro barnebiltzen ditu, egoera desberdinak kontuan hartu gabe. Aztertutako kasuan, hobesten da ez erabiltzea “gerrako ume” terminoa erbesteratutako haur euskaldunen artean, diferentziaziorik ez duelako egiten haien eta egoera guztiz kontrako umeen artean. Bide honetatik, urtero ospatzen zen euskal umeen bilkura batean, honakoa zeritzon euskal ume batek, modu zeharo informal batean: *Nosotros somos los olvidados, somos niños vascos evacuados. No somos los niños de la guerra, pues eso podrían ser considerados incluso los niños nazis* (Sabín, 2011, 131.orr).

Bestalde, gatazkarako espazioa ekarri duen hitza *ume* ala *haurrarenak* dira. Hitz hauen erabileraren gatazka-kasu bat Bilbon izan genuen. Bilbon, izan ere, 37an errefuxiatutako bi

elkarte zeuden soilik, bata Europa hurbilera erbesteratuak izan zirenena (Asociacion de niños evacuados el 37) eta, bestea, berriz, SESBera erbesteratutakoena. Europa hurbilera (Frantzia, Erresuma Batua, Belgika, etab.) erbesteratuak izan ziren elkartearen izenak, (Asociacion de niños evacuados el 37), barne-gatazka bat ekarri zuen; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, *jubilatu* izena jarriko baliote elkarteari (*haur ordez*), diru publiko kantitate baten aitortpena jasoko lukete. Hala ere, bertako partaide gehienek uste zuten elkartearen esentzia zela *haur* hitzaren agerpena izenean, 70 eta 80 urte artean bazituzten ere, erbesteratutako euskal haurrak izaten jarraitzen zutelako. Barne-gatazka honek elkarte soil hau bi elkartetan banatzera eraman zuen: “37an ebakutatutako haurren elkarte” alde batetik, eta “Gerra Zibiletik ebakutatutako jubilatuen elkarte” bestetik.

Bide beretik, egindako behaketa teorikoak eta elkarriketek ondorio xume batera garamatzate haur edo ume hitzak erabiltzerako garaian. Erbesteratutako haur hauek, hasieratik, euskal ume edo euskal haurren terminoa bereganatu zuten, horrela aurkeztuak izan baiziren haien harrera-herrialdeetako kanpamentuetan. Adibide bat jartzearen, 1937ko maiatzaren 20an, iada, *Hampshire Chronicle* deituriko egunkariak argitaratutako gutun batek honakoa zion: “*Stoneham iparraldean ia 4.000 euskal umerentzat ezartzen ari den kanpamenduarekin lotuta...*” (Sabin, 2011, 137.or).

Bestalde, diaspora kasu honetan harrera-herrialdeko (Britainia Handiko) biztanleak ere haur edo ume terminoa bereganatu zuen, Gernikako belaunaldiko haur batek zion bezala: “*Íbamos bastante al cine en el pueblo. Entrábamos sin pagar, sólo hacía falta decir al portero: Basque Children, y él contestaba: Walk in*”. (Eizaguirre, 1999, 154.orr). Gainera, eta, agian justifikazio garrantzitsuena termino hau erabiltzeko izan daiteke britainiar herriak berak erabiltzen zuela euskal ume edo haur terminoa, baita euskal haur hauek Erresuma Batura iritsi baino lehenago ere. Honen arrazoi nagusiak hauek dira:

- Lehenik, merkataritza-loturak existitzen zirelako Britainia Handiaren eta Euskal Herriaren artean, batez ere Southampton-go portuan.
- Bigarrenik, gerra zibila hurbiletik jarraitu zuen britainiar publikoaren sektore handi batek, euskal probintzien egoera zailaren jakitun izanik.
- Hirugarrenik, Britainia Handiko Gobernuak ebakuazioa baimendu zuenean, Basque Children's Committee (BCC) (Euskal Haurren Batzordea, euskaraz) sortu zen, Erresuma Batura iritsiko ziren haurren erantzukizuna bere gain hartu zuena. Ez da harritzekoa erakunde horrek "euskal" hitza erabili izana haurrei buruz hitz egiteko beren prozedura ofizial guztietan eta herrialde osoan dirua biltzeko antolatu zituzten ekitaldietan.

Finean, gai honi lotutako historialari eta autore ia guztien artean existitzen bat-etortze bat euskal ume edo haur terminoaren erabileran.

4. MARKO TEORIKOA: 1937KO GERNIKAR BELAUNALDIA BRITAINIA HANDIAN

4.1 Gerra Zibilaren testuinguraketa

1930 hamarkadan Europako herrialde askotan faxismoaren eta beste ideologia totalitarioen aldeko apustu handiaren joerak gudaroste eta eraso hainbat ekarri zituen kontinente berrian, baita gainontzeko kontinenteetan ere. 1935an, adibidez, Italia faxistak Abisinia (egun Etiopia dena) erasotu zuen, Nazioarteko Erakundeak deus eginik Mussoliniren erasoak gelditzeko. Alemania, bestalde, oraindik lehen gerrate mundialeko ondorioek jota, Hitler eta nazien propagandan murgilduta zebilen.

Espainian, berriz, bigarren errepublikan lortutako askatasun politiko eta aldaketa sozialak deuseztatu zituzten matxinatuak Franco-ren aginpean antolatu ziren, 1936ko uztailaren 18an Espainiako gerra zibila hasiz, estatu kolpe bat emanez. Espainiar lurraldean Emilio Mola general militar faxistak koordinatzen zituen matxinadak, ondoren iparraldeko Espainiako matxinadak koordinatu zituen bilakatuz. Zentzu honetan, estatuko erakunde armatuek, hala nola goardia zibilak eta militarrek, gerra zibilaren alde bat aukeratu behar izan zuten, haiek, dudarik gabe, parte hartuko baizuten gudarostean. Horrela, Madril, Bartzelona eta Alikanteko militar eta goardia zibil gehienak gobernu errepublikarraren alde posizionatu ziren eta, bestalde, Malaga eta Burgosekoak, berriz, Francoren alde (Jackson, 1965).

Matxinada gertatu eta gutxira lortu zuten faxistek Araba eta Nafarroa haien esku geratzea. Eusko Alderdi Jeltzalea, Gipuzkoan eta Bizkaian botere handiena zuen alderdia, ezkerreko alderdiekin elkartu eta Gipuzkoako eta Bizkaiaiko defentsarako batzordeak antolatu zituzten. EAJko buruzagien hitzetan, “herrien eskubideak edo faszismoa, Errepublika edo monarkia” zeuden aukeragai eta, zentzu honetan, EAJren eta alderdi ezkerrekoen arteko batasunak gobernu errepublikarraren aldeko apostua egin zuten (Payne, 1975, 163.orr).

Behin Araba eta Nafarroa erorita, Alfonso Beorlegi militarrek, Italiar hegazkin faszisten laguntzaz, Irun eta Donostia bonbakatu zuten eta, bestalde, Mola generalaren agindupean zeuden militarrek etorri ziren Andaluziatik matxinatuei laguntza emateko. Hau horrela,

Gipuzkoa militar faszisten erasopean zegoen, eta lehen exodo masiboak gertatu ziren Euskadin 1936ko abuztuaren amaierarantz.

Hilabete horren amaieran, hiru egunetan soilik, bost mila emakume, ume eta zaharrek Bidasoako zubia gurutzatu zuten Frantziarantz (Rubio, 1977, 37-40.orr). Bestalde, irailaren 4an Irun erori ondoren eta hilaren 12an Donostia erori ondoren, berrogei mila bat pertsonak ihes egin zuten hilabete baino gutxiagoan, Eusko Jaurlaritzak helarazitako zenbakiei dagokionez (Eusko Jaurlaritza, 1938).

Nahiz eta 1936ko urriaren hasieran matxinatuak iada Eibarko frontean zeuden, Gipuzkoako azken lurraldeak harrapatzeko prest eta Bizkaia inguratu eta honen gain azken ofentsiba egiteko prest, Eusko Jaurlaritzak oraindik ez zuen erbesteratze masibo bat antolatzeko aukera begietsi. Finean, lurralde hauetan zeuden errepublikarrek oraindik armak zituzten, baita biztanleriak bizirauteko janaria eta baliabideak ere. Umeei dagokionez, gehienak ziur zeuden errepublikarren garaipenaz oraindik.

Urriaren 7an Euzko Jaurlaritza sortu zen gobernu autonomo moduan frankisten kontrolpetik at gelditzen zen lurraldean. Matxinatuen boterea eta posizio geografikoa gerraren baitan zabaltzen zihoan eta 1937ko martxoaren amaieran, Bizkaiaiko oldarraldia hasi zen. Euskal Herrian aurrera eramaten ari zen gerra intentsifikatu zen hurrengo hilabeteetan eta faxisten helburua, azken finean, Bilbo hartzea zen. Martxoaren 31an, zentzu honetan, faxisten aire-erasoaldiak hasi ziren Elgeta, Otxandio, Elorrio eta Durangon. Durangoren erasoaren helburua zen ibilgailuen trafikoaren gaineko kontrola ezartzea, erabat geldiaraziz eta biztanleria zibila beldurtuz. Durango, frontearen eta Bilboren arteko komunikazio-lerroan giltzarri zen herria, helburu militar gisa hartu zen eta, horren ondorioz, 250 biktima izan ziren herri honetan (Uriarte, 1976).

Bizkaiko fronte errepublikarra, egun hauetan, zeharo ahuldu zen. Orain arte euskal gudariek Bizkaiko mendien kontrola bazuten ere (erasoaldiak kontrolatzeko balio zuena), hau ere galtzen joan ziren. Apirileko lehen 20 egunetan, Maroto, Albertia, Jarinto eta Udala mendiak erori ziren matxinatuen eskuetan. George Steer historialariak ondo laburtu zuen erasoaldi hauen eragina zita honetan: *“Euskal Armadak, bere 45.000 gizonekin, 190 kilometroko frontea babesten zuen. Lerro hori ezin zen etengabekoa izan, eta haren su-ahalmena oso txikia zen, arma automatikoak falta baitzitzaizkion. Infiltrazioa aldapan gora ibiltzea bezain erraza zen.”* (Steer, 1938, 177.or).

4.2 Gernika. Ikur unibertsal baten hasiera.

Apirilaren azken egunetan, zehazki apirilaren 24a eta 30a bitartean, Elorrio, Elgeta, Ermua, Markina, Lekeitio, Durango, Bermeo eta Gernika erori ziren matxinatuen esku (Arrien, 2014. 53.orr). Apirilaren 26an gertatu zen Gernikaren bonbaketa izan zen, dudarik gabe, kanpaina honen adierazpenik krudelena. Gainera, *carpet bombing* ala erabateko suntsiketa izeneko bonbardaketa metodoaren hasiera eman zitzaion bertan.

Astelehen horretan, Bizkaiako Gernika herrian azoka eguna zen, eta bertan zeuden Gernikar zein ondoko herrietako baserritarrak, merkatariak eta gainontzekoak produktuak saltzen eta erosten zeudenak (herri honen biztanleria 6.600 pertsonakoa bazen ere, azoka egun honetan pertsona zeharo gehiago zeuden) (Steer, 1938. 193.orr). Herriari dagokionez, Gernika ez zen itu militar bat; alde batetik, herri honetan militar errepublikarrak ez zeudelako bertan pilatuta eta, bestetik, herria ez zegoelako errepide ala toki estrategiko batean kokatuta (Legarreta, 1984). Hau esanda, arratsaldeko laurak aldera, alemaniar Condor Legioa Gernika bonbatzen hasi zehen, bi bonba motekin: bonba konbentzionalekin eta su-eragileak ziren bonbekin. Hiru ordu iraun zuen bonbaketa honetan, estimazioen arabera, 250 eta 1600 pertsona artean hil ziren (Uriarte, 1976, 138.orr). Herriak sutan jarraitu zuen hurrengo egunera arte, herri ia guztia suntsituz eta milaka pertsonak Bilbora ihes egin zuten (Southwarth, 1977, 12.orr). Bonbaketaren hurrengo egunean, Jose Antonio Aguirre lehendakariak mezu bat zuzendu zion mundu osoari, biztanleria zibilaren aldeko deia eginez (ikus: 1. eranskina).

Bonbaketaren ondorengo erreakzioak maila internazionallean asko izan ziren, baita forma desberdinekoak ere. Alde batetik, kazetaritzan eta herrialde askotako egunkarietan oihartzuna izan zuen gertakariak. George Steer, *The Times* egunkari britainiarreko berriemaileak, honi buruz idatzi zuen egunkari hartan (geroantzean gerra zibilari buruzko idazlea bilakatu zen Steer, “El árbol de Guernica” idatziz). Bestalde, bonbaketaren hurrengo egunean, Parisko irratian, gertakariari buruz hitz egin zuten Aguirre lehendakariak, José Labauria-k (Gernikako alkatea), Jesús Maria Leizaola-k (Eusko Jaurlaritzako justizia-sailburuako kontseilaria) eta Bonifacio Echegaray-k (jurista gorena). Hau horrela, geroantzean eta gaurdaino bonbaketa honi buruz oihartzun gehiena eragin duen ekimena Pablo Picasso-ren *Guernica* koadroa izan zen.

Ingalaterran, egunkariek ere honen berri eman zuten hurrengo egunetan. *Morning Post* egunkariak, haren lerroburuan, “*Gernika herriko masako hilketak; jendearen kontrako sutea sortu da babeslekuetan babesa bilatzen zuenean biztanleriak*” zion. *Daily Express*

egunkariak bestalde, honakoa zion: *“Beti gomendatu izan dugu neutraltasun erabatekoena, baina gauza batzuek gure protestarik berehalakoena eta sendoena sorrarazten dute, hala nola Gernika, herria otoitz egiteko bildu baitzen”* (Arrien, 2014, 55-56.orr).

Azken asteetan, beraz, euskal errepublikarren egoera oso ahula bilakatu zen. Bilbo-k, iada ehundaka milaka errefuxiatu hartu zituen, eta ez zegoen galera guzti hauei aurre egiteko hornidurarik. Eusko Jaurlaritzak ebakuazioak antolatzeke sekulako beharra zuen. Frantziara milaka pertsonak ihes egin bazuten ere, Eusko Jaurlaritzak begi-onekin ikusten zuen Britainia Handira bidaltzea biztanleriaren zati bat. Hau horrela, garrantzitsua da analizatzea Britainia Handiaren ikuspuntua gerra zibilarekiko, honek zeharo baldintzatu zuelako ebakuazioen egituraketa, finantziaketa, eta etorkizuneko errefuxiatuen antolaketa.

4.3 Britainia Handia eta gerra zibila

Gerra zibilak gizarte britainiarrean eragin handia izan zuen. Hainbat manifestazio egon ziren, beste hainbeste komiteen sorrera, panfletoen banaketa, etab. (Buchanan, 1997, 63.orr). Gizartearen baitan sinpatia gehien eragiten zuen aldea errepublikarrena zen. Hala ere, britainiarren gehiengoak pazifismoaren aldeko deia egiten zuen, baita ezkertiarra zen alderdi laboristak ere. Gerraren hasieratik, parlamentuan gehiengo absolutua zuen eta gobernatzen ari zen alderdi kontserbadoreak arrisku gehiagorekin ikusten zuen Fronte Popularra Frankistak baino. Hau, finean, arrazoi argi batzuegatik zen. Frankismoaren ideologia eta propagandaren eraginez, britainiar gobernu kontserbadoreak uste zuen espainiar II. errepublikak boltxebismoaren ideiak jarraitu nahi zituela eta, beraz, gerra zibilaren hasieratik armak bidaltzea debekatu zuen (Matthews, 1973, 149.orr).

Europako herrialde gehienak oraindik 29ko krisiaren ondorioak pairatzen ari ziren eta, beraz, espainiar gerra zibilean ez esku-hartzeko erabakia hartu zuten. Honek, argi eta garbi, matxinada elikatu zuen. Izan ere, Italia eta Alemaniak (faxistak eta naziak gobernuan zituztela, hurrenez hurren), hasieratik babestu zuten matxinada militarki. Britainia Handiko gobernuak, Londresen, Interbentzio-Ezaren Komitea sortu zuen eta, bertan, Europako 27 herrialdek, gerra zibilarekiko Interbentzio-Ezaren Akordioa sinatu zuten. Akordio honen pean, debekatuta zegoen gerrako materiala saldu eta garraiatzea gatazkan zeuden alderdietako edozeinentzat, sinatutako kontratuak barne, baita Espainiara borrokalaria atzerritarrek bidaltzea ere (Sabin, 2011, 58.orr). Komunismoarekiko beldurra faktore erabakigarria izan zen gatazka horretan ez parte hartzeko (Tusell, 1988). Horrela, gobernu britainiarrarentzat, "arrisku komunista larriena zen (...) oraingoz, faxismoaren eta nazismoaren mehatxua ez zen behar bezain argi agertu" (Tusell eta Garcia, 1993, 242.or).

Argi geratu zen bezala, interbentzio ezaren itun honek ez zuen neutralitatea adierazten gerraren aurrean. Hain zuzen ere, demokratikoki aukeratutako gobernu baten artean eta matxinatutako bando faxistaren aurrean “neutral” mantentzeak, era batera ala bestera, matxinatuen ekintzak defendatzera eramaten zuen herrialde bat. Kasu honen adibide argia izan zen gobernu britainiarra. Izan ere, 1937an Francok kantauriar kostaren blokeo bat ezarri zuenean, Britainia Handiak ez zuen lehenetsi biztanleria zibilari laguntza bidaltzea (janaria eta medikamentuak, esaterako), eta blokeo hau onartu zuen. Gerra zibilari buruz aztertu duten autore askok, beraz, itun hau antolatu zuten komiteari ezizen bat jarri zioten hau deskribatzerakoan, komitearen fartsa deiturikoa (“la farsa del comité” gazteleraz, “the farce of the committee” ingeleraz) (Jackson, 1965).

Itun hau gobernu kontserbadoreak sortzea eta sinatzea ez zen harritzekoa izan. Finean, gobernu kontserbadore honek antzekotasun gehiago zituen matxinatuekin errepublikarrekin baino. Hau horrela, hasiera batean ezkertiarra zirudien alderdi laboristak (Labour Party), itun hau babestu zuen. Gerrak aurrera egin ahala, Errepublikarekiko sinpatia handitzen joan zen. Horrek aukera eman zion britainiar alderdi komunistari, ezkerraren lidergoa hartzeko eta laboristei aurre egiteko. Alderdi komunistaren batasuna eta energiak, laborismoaren barne-zatiketei aurre egiteko tresnak bilakatuko ziren, baita eta, bestalde, Errepublikari laguntzeko prestatzen ari ziren erakunde askok alderdi komunistaren antolaketa eta diziplina beharko zituzten (Buchanan, 1997, 66-67.orr).

Alderdi-politikak itxaropen gutxi ematen zuen gobernu britainiarrean eragiteko politika aldatzeko, eta Nazioarteko Brigadetan sartzeko hautua gutxi batzuk baino ez zuten hartu, baina funtsen bilketa eta laguntzaren antolaketa guztientzat irekita zeuden aukerak ziren eta diferentzia materiala egin zezaketen hauen bidez. Testuinguru honetan, “ad hoc” erakunde ugari sortu ziren, dirua biltzeko eta laguntza antolatzeke. Hasieratik, nazioarteko sorospenean garrantzitsuak ziren bi erakunde britainiarrek, “Society Of Friends” eta “Save The Children Fund” erakundeak, interes handia hartu zuten Espainiako gerra zibilean, baina argi eta garbi utzi zuten ez zirela erakunde politikoak, eta ezin izan zuten asetu gerra zibilean biztanleria errepublikarrak behar zuen laguntza. Britainiar gobernuak ere biztanleria errepublikarra lagundu zuen hein batean. Finean, gobernu britainiarrak 73.000 libra gastatu zituen, gutxi gora-behera, ontziebakuazioetan 1936tik 1937ra (Alpert, 1984, 423-440.orr). Hala ere, emandako milaka libra horiek gobernu britainiarra gerran zuzenki ez interbenitzeko erabili zen. Izan ere, lehen ministroa zen Neville Chamberlain-en hitzetan, “termino onak lortu behar genituen etorkizuneko Espainiarekin” (Buchanan, 1997, 64.orr).

Beraz, gerraren hasieran, alde errepublikarrak eta biztanleria orokorrak behar zuen laguntza modu kaotikoan eta antolatu gabean iritsi zen, ez baitzegoen hegemoniarik zuen antolakunderik laguntza bidaltzeko. Hau 1936aren amaieran aldatu zen, “National Joint Committee for Spanish Relief” (Espainiako Laguntzako Batzorde Misto Nazionala) antolakundearen sorketarekin, 1936aren azaroan. Orain arte laguntza antolatzen ari ziren hainbat antolakunde, indibiduo eta politikari barnebildu zituen NJCSR-ak. Teorian, “erakundea alderdi guztietakoa eta apolitikoa zen, laguntza humanitarioa koordinatzeko eta beste erakunde batzuetan egiten ez ziren lan batzuk egiteko” (Warwick University, d.g.). Hala ere, praktikan jartzeko garaian, errepublikaren aldekoa zen erakunde hau eta, erakunde honen presidentea, Atholl-go Dukea, errepublikaren oso aldekoa zen.

Katherine Marjory (1874-1960) izena zuen Atholl-go Dukeak eta, haren papera oso garrantzitsua izan zen errepublikaren aldeko laguntza antolatzen. Harritzekoa bada ere, NJCSR-en presidentea zen Dukea hau alderdi kontserbadoreko diputatua zen. Haren helburu nagusia, NJCSR-en presidente gisa, “Espainiako erregimen legala babestea” zen (Euzko Deya, 1936ko abenduaren 3).

1937ko apirilean, Atholl-go Dukeak Espainiara egin zuen bidaia Eleanor Rathbone, Ellen Wilkinson eta Rachael Crowdy-rekin batera, gerra zibilaren ondorioak ikuskatzera. Valentzia, Madril eta Bartzelona bisitatu zituzten, matxinatuen bonbaketek utzitako ondorioak ikusiz. Hontaz gain, preso errepublikarrak bisitatu zituzten, baita biztanleria zibila (bereziki haurrak eta emakumeak) ere (Arrien, 2014, 104.orr). Hau ikusi ondoren, irati ingelesetik dei bat egin zion bai biztanleria orokorrari, bai politikariei ere, laguntza bidali zezaten albo errepublikarrera.

4.4 Ebakuazioen antolaketa

4.4.1 Laguntza antolakundeak, Leah Manning eta autoritate britainiarrak

Gerraren testuinguraketan aipatu den bezala, 1937ko apirila oso lazgarria izan zen alde errepublikararentzat Euskadin eta, beraz, Euskaditik atzerrira joan behar ziren haurren kopurua biderkatu zen, garai honetarako Euskadiko alde errepublikarrean geratzen ziren baliabideak eskasegiak zirelako Bizkaiak jasan izan zituen barne-errefuxiatu guztientzat. Frantziara hainbat espedizio egin baziren ere hilabete horietan zehar, garrantzitsua zen lehen bai lehen Ingalaterrara espedizioak bidaltzea.

Horretarako iritsi zen Leah Manning Bilbora 1937ko apirilaren 24an, Edith Pye-rekin batera. Leah Manning (1886-1977), berez Elizabeth Leah Perrett izena zuena, irakaslea, orientatzailea eta parlamentari laborista izan zen 1930 eta 1940 urte artean. Haren garrantzia espedizio honetan lehen mailakoa bilakatu zen. Manning maistraren hasierako intentzioa Madrilera joatea zen anbulantzien konboi bat bidaltzeko. Hau horrela, Londres-eko Eusko Jaurlaritzaren delegazioak Bilbo bisitatzea eskatu zion, euskaldunen errealitateaz konturatu zedin. Bilbora iritsi zenean, beraz, britainiar kontsulatura iritsi zen eta R.C. Stevenson ikusi zuen, britainiar kontsula Bilbon. Kontsulak, *“Ahal bezian laster bueltatu behar zara”* esan zion Manning-i eta, azken honek, honakoa erantzun zion *“Ez naiz bueltatuko. Hona etorri naiz Eusko Jaurlaritzak eskatuta, Londresko ordezkariaren bidez, eta euskal haurrak Ingalaterrara eramatea proposatzen dut. Aguirre lehendakaria aurkeztea eskatzen dizut”* (Arrien, 2014, 106.orr).

Leah Manning-ek, azken finean, sortu berri zen BCC (Basque Children's Committee) edo Euskal Haurren Komitearen ordezkari bilakatu zen Bilbon. BCC-k hiru helburu nagusi zituen: euskal haurrak Euskaditik Ingalaterrara bidaltzeko espedizioak antolatzea, Britainia Handian kanpamendu eta eskoletan banatzeko logistika guztia antolatzea eta, azkenik, espedizio hauek eta haien Britainiar egonaldia babestuko zuen finantzaketa lortzea.

Hortaz, Stevenson kontsula, Britainiar kanpo-politikaren ministerioaren (*Foreign Office*) eta Leah Manning-en arteko bitartekaria izan zen. Zentzu honetan, Stevenson-ek Aguirre lehendakariarekin hitz egin zuen, Eusko Jaurlaritzako lehendakariak argi zuelako Ingalaterrara bidali nahi zituela haurrak. Stevenson-ek bidali nahi zituen haur kopuruari buruz galdetu zionean lehendakariari, haren erantzuna hau izan zen: *“4.000 inguru, bost eta hamasei urte bitartekoak; apaizen eta maistren kargupean egongo dira, 300 bat heldu”* (Manning, 1970, 125.orr). Harriduraz hartu bazuen ere Manning maistrak zifra handi hura, argi zuen posible zela. Izan ere, ordura arte antolatutako ebakuazioak (gehienak Frantziara), oso ondo antolatu zituen Eusko Jaurlaritzak, Manning-en usteetan. Bere hitzetan, hau hiru arrazoiengatik izan zen:

“Atmosfera hori hiru bidetatik sortu zen: publizitate zaindua; neutraltasuna eta inpartzialtasuna erabat bermatzea ebakuatuak aukeratzeari eta irteteko ordenari dagokienez, eta pertsona arduratsuengan konfiantza sortzea, bereziki haurren ardura izango zutenengan.”

(Manning, 1970, 128.orr)

Hasiera batean, soilik 2.000 haur bidaltzeko intentzioa zegoen Ingalaterrara. Hala ere, Aguirre lehendakariak 4.000 haurren zifra eman zuenean, denbora galtzeko astirik ez

zegoen. Zuzenean, Manning-ek Wilfred Roberts (britainiar parlamentuko diputatua) telegrafiatu zuen, 4.000 haur bidaltzeko baimena eskatuz. Baimen hau baieztatu zen eta, telegrafia berean, Wilfred Roberts diputatuak aipatu zion Manning-eri iada milaka libra bildu zirela ebakuazioa antolatzeko.

Hau horrela, Wilfred Roberts-ek emandako baimena ez zen baimen ofiziala; hau da, oraindik hainbat pauso eman behar ziren ofizialki 4.000 haur horiek Ingalaterrara joateko. Manning-ek, honela, hainbat telegrama bidali zituen. Alde batetik, Canterbury eta Westminster-eko artzapezpikuekin kontaktatu zuen (erabaki honen aldeko pertsona ospetsuak eta garrantzitsuak zirelako) prozesu hau arindu zezaten. Laister, beraz, autoritate britainiarren erantzuna jaso zen. Hauen hitzetan, erabakia, lehenik Mr. Stevenson kontsulak eta Angel Ojanguren prokontsulak onartu behar zuten eta, azkenik, britainiar kanpo ministroak, Anthony Eden-ek, kontsulak eta prokontsulak hartutako erabakia baieztatu beharko zuen.

Stevenson eta Ojanguren-ek azkar eman zuten baiezkua; alde batetik, bonba artean zeudelako bizitzen Euskadin (eta gertakari honek influentzia izan zuen haien erabakimenean) eta, bestetik, hasieratik zeudelako haurren ebakuazioaren alde. Hortaz, Ojanguren-ek idatzi zuen bezala *“aireko babeslekuan egon eta egun gutxira, Torrontegui hotelera joan nintzen, (Mr. Stevenson-ek) ostatu hartu zuen lekura, eta Mr. Eden-ek sinatutako kable bat jaso zuela jakinarazi nion. Britainia Handian 4.000 euskal umeei sartzeko baimena eman zien.”* (Ojanguren, 1990, 44.orr).

Horregatik, baita ere, sortu zen lehen aipatutako BCC-a (*Basque Children's Committee* edo Euskal Haurren Komitea). NJCSR-eko ordezkari hainbat joan ziren Ingalaterra, Eskozia eta Gales osoan zehar, kasu honetan sortu berria zen BCC-ren partaide gisa, BCCren tokiko sukurtsal edo adar txikiak ezartzea, eta haurrak zaintzeko dirua biltzea. Izan ere, Britainiar Home Office-ak (Barne Ministeriotzak) ezarri zuen BCC-ak haur bakoitzarentzat astero hamar txelina lortu behar zituela eta, bestalde, etxebizitza eta hezkuntza-instituzio pribatuetan sartu beharko lituzkete haurrak BCC-ak, zama handi bat bilakatuz (National Joint Committee, 1937ko maiatzaren 15, 1.orr).

Handik gutxira, BCCko tokiko adarrei eskatu zitzairen ostatua, janaria eta arreta medikoa emateko hurrei, Southampton-eko portu-hiritik kanpoko harrera-kanpamentu batean koarentena-aldi bat eta trantsizio bat egin ondoren. (Legarreta, 1984, 102.orr). Eskakizun ekonomiko hauek, hasiera batean lortezinak baziruditen ere, hainbat dohaintza-emaile

partikularrek eta sindikatuk (CNT Euskal Herrian eta *Salvation Army* Ingalaterran, esaterako) lagundu zuten ekonomikoki.

4.4.2 Eusko Jaurlaritzaren papera

Beraz, ebakuazioa bera antolatzeko garaia iritsi zen. Eusko Jaurlaritzak, noski, paper garrantzitsua beteko zuen ebakuazio hauen antolaketan. Zentu honetan, 1936ko urriaren 1an, Euskadiko lurraldeen zati bat iada matxinatuen esku zegoelarik (Araba eta Gipuzkoaren zati bat, Eibar arte), autonomia-estatutua onartu zen. Autonomia-estatutuan onartutako Eusko Jaurlaritzaren bi kontseilaritzak hartu zituzten erabakimen eta ardura nagusiak ebakuaketak antolatzerako garaian: gizarte-laguntzako kontseilaritza (*consejería de asistencia social*) eta kultura-kontseilaritza (*consejería de cultura*).

Gizarte-laguntzako kontseilaritzak, Juan Gracia sozialista buru izanik, funtzio nagusi hauek zituen: ebakatuak izango ziren hurrei buruzko informazio esanguratsuena jasotzea (izena, adina, etab.), hurrei eta gurasoei helarazi beharreko informazioa helaraztea, eta, azkenik, ebakuaketen logistika guztia antolatzea (zein itsasontzi nora bidali, zenbat hurrekin, zein kolonietara, etab.). Bestalde, kultura-kontseilaritzak, Jesus Maria de Leizaola jeltzalea buru izanik, funtzio hauek bete zituen, gehien bat: irakaskuntza-langileen (irakasleen) eta kapilauen izendapena (Arrien, 2014).

Azken bi hauek izan baziren, gehien bat, ebakuaketak antolatu zituztenak, beste hainbat kontseilaritzak (edo ministeriok) ere parte hartu zuten. Osasun-sailaren funtzio nagusia hurrei txertoak jartzea, haurrak pisatu eta neurtzea eta hauei laguntza sanitarioak eskaintzea izan zen. Gizarte-laguntzako saila, bestalde, alor burokratikoetaz arduratu zen gehien bat (hala nola pasaporteak esleitzea hurrei). Azkenik, Ogasun-sailak atzerriko diru-motei buruzko eta diru-kantitateei buruzko informazioa helarazi zien haur eta helduei.

4.4.3 Haurren inskripzioa

Ebakuazioen antolaketan ardura nagusi bat ebakuazioen informazioaren zabalpena eta argipena zen Eusko Jaurlaritzarentzat. Hau, ein handi batean, Euzkadi egunkariaren bitartez egin zuen. Egunero (astelehenetan ezik) argitaratzen zen egunkari honetan hainbat gauzen berri ematen ziren, hala nola gerraren azken eguneraketak (berezik Euskal Herrikoak), koiuntura politikoaren eta munduko egoera orokorraren nondik-norakoak, publikoak ziren ikuskizunak eta iragarkiak. Maiatzaren lehenean, iada, honakoa zion lerroburu batek: *“Francia e Inglaterra están dispuestos en principio a facilitar la evacuación de niños y*

mujeres vascos para librarles de los horrores de la guerra - en estos momentos siguen los trámites para la humanitaria tarea,” (Euzkadi, 1937ko maiatzaren 1).

Maiatzaren hasieran, baita ere, gizarte-laguntzako kontseilaritzak publiko egin zuen Britainia Handira “espedizio” bat egingo zutela, haurrak eramateko. Era berean, haien haurrak erbusteratzea nahi zuten gurasoek fitxa bat bete behar zutela iragarri zuten. Espedizio honetako fitxak ez badaude ere Euskadiko Artxibo Historikoan, beste toki batera (Sobietar Batasunera) joateko fitxa batzuk badaude. Logikoki, fitxa hauek berdinak izango liratezke kasu honetan, soilik “*expedición a*” atala aldatuz (ikus: 1. irudia)

Fitxa hau gizarte-laguntzaren sailaren bulegoan jaso behar bazuten ere, bertan, baita ere, azterketa mediko bat egin zitzaien hurrei. Azterketa mediko guzti hauek, Britainia Handitik etorritako Richard Ellis eta Audrey Russell doktoreek egin zituzten. Ebakuaketa hau egiteko behar zen fitxa betetzen zutenek eta azterketa mediko onezkoa lortzen zuten guztiek, identifikatzeko disko hexagonal bat jaso zuten, haien identifikazio zenbakia eta “Expedición a Inglaterra” ipintzen zuelarik (ikus: 2. irudia) Guztira, finean, 4.182 haur inskribatu ziren espedizio honetarako (Legarreta, 1984, 100.or).

4.4.4 Irakasleen, laguntzaileen eta apaizen inskripzioa

Zentzu batean, Eusko Jaurlaritzarentzat exiliatuak izango ziren irakasleak inskribatuko ziren haurrak bezain garrantzitsuak ziren. Exiliatutako haurrak bezala, irakasleen inskripzioa guztiz boluntarioa izan zen. Errekrutatzeak ez zuen arazorik sortu: inskripzio ugari egin baiziren. Irakaslegoari dagokionez, eskola mota desberdinetako irakasle eta laguntzaileek eman zuten izena: eskola nazionalak, udaletakoak, auzo-eskolak (*escuelas de barriada*), ikastolak, etab. (Luis Aguirrerren egunerokoa, 1937ko maiatzaren 3, Arrien-ek aipatuta, 2014). Gerra zibilean gizonak ziren irakasle gehienek armak hartu zituztelako, exiliatutako irakasle ia guztiak emakumeak ziren. Hauen baitan, gehienak emakume gazteak ziren; izan ere, ama ziren irakasleentzat zailagoa izango zen exiliatzea. Inskribatu nahi zuen irakasle orok Justizia eta Kultura ministeriotik pasa behar zuen (Bilboko Ibañez kalea, 22), haien dokumentazioa emateko, baita jarraibide batzuk eta argipen batzuk (hala nola espedizioaren helmuga) jasotzeko. Ez badago argi ere zein izan ziren Ingalaterrara joan ziren irakasleen jarraibideak, Frantziako kolonietara joan ziren irakasleek jasotakoak argi zeuden. Finean, jarraibide horiek luzeak baziren ere (ikus: 2. eranskina), irizpide edo iruzkin nagusiek honakoa zioten:

- Amen papera hartu behar dute, ikasleen zalantzak argituz, haien kezkak arinduz eta uneoro lagunduz.

- Harrera-herrialdeko hospitalitatea eskertu behar dugu eta haiekin elkarlanean jardun.
- Harrera-herrialdeko ohitura, usadio eta berezitasunak errespetatu behar ditugu, herri duin, serio eta demokratiko bat garen irudia transmitituz eta gure ospe ona mantenduz.
- Debekatuko dira alderdi politiko edo sindikatu desberdinen aldeko edo kontrako ohiuak, manifestazioak eta abar. Hau horrela, onargarria eta ona izango da dantza, kantu eta kirol euskaldunen erakusketa.

Ingalaterrarako espediziora hasiera batean 100 irakasle joan behar baziren ere, azkenean 95 joan ziren (gainontzeko bost irakasleak, azkeneko momentuan, Bilbon geratzea ala Frantziako kolonietara joatea erabaki zuten).

Gizarte-Laguntzako Sailak, beste alde batetik, 120 laguntzaile bidali zituen espedizio honetan. Laguntzaile hauei, baita ere, mezu bat helarazi zitzaion, bost iruzkin nagusirekin (iruzkin hauek aurrerago egindako espedizio batetik atera dira):

- Haurrak zaindu beharko ditu, hau betetzeko eginkizun desberdinak eginez.
- Lan-egunen luzera baldintzen arabera izango dira.
- Ingalaterran pasako duten denbora Laguntza Komiteak balioesten duenaren arabera izango da.
- Laguntzaileek 250 franco-ko soldata jasoko du, Gizarte-Laguntza Sailarengandik, baita jana, ostatua eta zerbitzu mediko-farmazeutikoa.
- Laguntzaileek jarrera txarra izatekotan, Laguntza Komiteak ahalmena izango du laguntzaile hura Bilbora bueltan eramateko.

(Jesus Irigorriren gutuna Juan Gracia-ri, 1937ko ekainaren 22)

Azkenik, orain aipatu bezala, hainbat apaiz joan ziren Ingalaterrako espediziora, hamabost, zehazki. Ramón de Galbarriatu-ren (Bizkaiako bikario nagusia) onespina jaso ondoren, hamabost apaiz horiek espediziora joan ziren, helburu nagusia haien zaintzapean utzitako haur katolikoen erlijio-heziketa izanik.

4.4.5 La Habana, itsasontzi baten Euzkaditik kanpora

Beraz, garaia iritsi zen Santurtzitik Southampton-era joango zen espedizioa egiteko. Guztira 4.152 haur inskribatu baziren ere hasiera batean bidaiatzeko, azkenean 3.861 haurrek bidaiatu zuten (2.156 mutil eta 1.705 neska) (Legarreta, 1984, 100.or). Bestalde, espedizioa egin zuten haurrak 7 eta 15 urte bitartekoak izan ziren (ikus: 3. eranskina). Kontuan hartu beharreko ezaugarri bat anai-arreben taldeen inskripzioa da; izan ere, 498 haurrek soilik

bidaiatu zuten “bakarrik”, hots, anai-arrebarik gabe. Hau da, hiru mila haur baino gehiagok haien anai-arrebaren batekin behintzat bidaiatu zuten (Arrien, 1991.48-49.or).

Bidai honetarako “*Habana*” lurruntzia erabiliko zuten, iada hainbat espedizio egin zituelako gerra zibilean, hala nola La Palice (Frantzia) eta Pauillac-era (Frantzia) bi mila baino haur gehiago eramanez 1937ko maiatzaren 19an, Gizarte-Laguntzako sailak hainbat argibide eman zituen prentsaren bidez gurasoek eta hurrek jarraitu zitzaten, gehien bat Santurtzin nora joan behar ziren esanaz eta ordena mantentzeko beste apunteren bat ere aipatuz (ikus: 4. eranskina). Bestalde, maiatzaren 20an, Euzkadi egunkarian, haurrak Bilbotik Santurtziko portura nola eramango ziren zehaztu zen.

Bestalde, egunkariaren lehen orrialdean, Bilboko “Naja” kaitik Santurtziko kairaino trenez joateko argibideak eman ziren. Haur bakoitzak “expedición a Inglaterra” eta haren identifikazio zenbakia zeraman hexagono bereizgarri bat zuen. Zentzu honetan, sei tren desberdinetan joan ziren haur, irakasle, laguntzaile eta apaiz guztiak. Tren bakoitzean 600-700 bat hurrek bidaiatu zuten, 15 bat irakaslek eta 20 bat laguntzailek. Lehen trena arratsaldeko bost eta erdietan atera zen eta, seigarren eta azkeneko trena, gaueko hamar eta erdietan atera zen (Euzkadi, 1937ko maiatzaren 20).

Habanan egin zuten espedizioa ez zen eroso izan, soilik 1.500 ohe zeudelako 4.000 bat bidaiarientzat eta, beraz, oheak ume gazteenentzako utzi ziren. Gainontzekoek, berriz, ahal zuten tokian egin zuten lo bi gauez. Gainera, Natalia Benjamin eta Cliff Kirkpatrick-ek espedizio honi buruz idatzi zuten artikuluko baten testigantza bati dagokionez, espedizioa ez zen izan deserosoa soilik ohe ezagatik, baizik eta bizkaiko golkoaren egoeragatik:

Ese primer día en el mar, el clima en el Golfo de Vizcaya fue atroz y casi todos los niños sufrieron mareos. Había vómito por todas partes. Vicente dice: “El viaje se convirtió en una verdadera pesadilla, me quitó la infancia. De repente ya no era un niño y todo me resultó muy difícil. De la noche a la mañana me convertí en adulto”

(Benjamin eta Kirkpatrick, d.g., 5.or.)

Hala ere, Dorothy Legarretak testigantza desberdin bat jaso zuen, positiboagoa:

“Ontzietan urtebetean ere jan gabe geunden janariak eman zizkiguten: lukainak, ogi zuria, eta ase eta bete egiteraino jan genuen. Handik ordubetera denok geunden oka egiten.”

(Legarreta, 1984, 101.or.).

Lurruntzia igandean (maiatzaren 23an) hasi zen lehorreratzen. Hala ere, bidaiarien lehorreratzeak astelehenera arte iraun zuen; finean, haurrak lehorreratzen zihoazen

heinean, beste osasun ikuskatze bat egiten zitzaielako. Ikuskatze mediko honetan, kolore bateko eskumuturreko bat banatu zitzaion bakoitzari. Eskumuturreko txuriak “garbia” esan nahi zuen (hau da, zuzenean kanpamentura joan zitekeela), gorriak esan nahi zuen kanpamentura joan aurretik komun publikoetan desinfektatu behar zirela eta, azkenik, urdinak esan nahi zuen ospitale batera joan behar zela, kutsakorra zelako haur hura. Haur gehienek eskumuturreko txuria hartu zuten, 700 baino gehiagok eskumuturreko gorria (710 Gregorio Arrien-en arabera eta 712 Nathalia Benjamin eta Cliff Kirkpatrick-en arabera) eta, azkenik, soilik bi hurrek jantzi zuten eskumuturreko urdina. Southampton-eko biztanleriak ongi etorri paregabea eman zien euskal umeei. Kasualitatez, umeen iritsierak Britainia Handiko George V-aren koroatzearekin aldiberekotasun bat izan zuen eta, beraz, kale guztiak apainduta zeuden Southampton-en. Leah Manning irakasleak honakoa zion, harreraren inguruan:

“Las decoraciones colocadas para la coronación permanecieron en las calles, por permiso especial otorgado por el alcalde de Southampton con objeto de que los niños pudieran verlas y los niños creyeron, naturalmente, que se habían colocado en su honor, y yo pude decirles que así era realmente” (Euzkadi, 1937ko maiatzaren 28, 1.or.).

4.5 North Stoneham-eko kanpamentua

Maiatzaren 23an, kotxez eta autobusez, haurrak, irakasleak, apaizak eta laguntzaileak North Stoneham-eko kanpamentura eramane zituzten. Eastleigh-n (Southampton-etik 7 kilometrora) kokatuta zegoen kanpamentu hau soilik hiru asteetan egin zuten (ikus: 3. irudia). Bertan bizi zen baserritar batena zen eremu hori eta, printzipioz, hiru hilabeteetarako dohaintza egin zion NJCSR eta BCC-ri. Izan ere, suposatzen zen hiru hilabete horien barnean bi aukeretako bat beteko zela: gerra amaitzea (eta haurrak Euskal Herrira bueltatzea) ala bertan zeuden haur guztiak kolonia, etxe eta kanpamentu desberdinetan banatzea Britainia Handian zehar. Kanpamentua sortzen bertako berrehun pertsona baino gehiagok lagundu zuten, tartean eskaut-ak (*Boy & Girl Scout*, ingeleraz), irakasleak eta iturginak.

North Stoneham-eko kanpamentuan, pankarta handi batek ematen zien ongi etorria hurrei, honakoa ziona: “National Joint Committee for Spanish Relief - Basque Children’s Camp” (ikus: 4. irudia). Hau da, argi zegoen kanpamentuaren antolaketa NJCSR eta BCC-k egin zutela. Azken bi hauek bostehun kanpin denda erosi eta kanpamentuaren logistika guztiaz arduratu baziren ere, hainbat dohaintza ere jaso zituen kanpamentuak. *Marks & Spencer* supermerkatu kateak, esaterako, donazioa handi bat egin zuen (tartean arropa asko eta

hogei mila laranja) eta, bestalde, *Cadbury's* txokolate markak haur bakoitzarentzat eguneroko anoa izango zen txokolatearen dohaintza egin zuen (*The Daily Telegraph*, 1937ko maiatzak 24).

Donazio materialaz gain, pertsona asko aurkeztu ziren bolondres gisa kanpamentuan laguntzeko. Kanpamentua sortzen lagundu zuten berrehun bat bolondresezetaz gain, hainbat igeltsero eta zurgin apuntatu ziren boluntario gisa kanpamentuan laguntzeko (Arrien, 2014, 161.or). Hau guztia gutxi balitz, Southampton-eko alkatea ere egon zen espagetiak zerbitzatzen euskal haurrei (*The Daily Telegraph*, 1937ko maiatzak 24).

Kanpamentuaren prestaketa ona izan bazen ere, garrantzitsua da kontuan hartzea Britainia Handiak sekula jasotako haur kopururik handiena zela ordura arte eta, beraz, laister hainbat arazo azaleratu ziren North Stoneham-en. Alde batetik, janaria jasotzeko ilarak luzeegiak ziren, eta haur zaharrenek haien txanda errepikatzen zuten, bai eta haur gazteenei ere janaria lapurtu batzutan (Legarreta, 1984, 109.or). Zorte txarrez, gainera, asteetan zehar euririk jasan ez bazuen ere Southampton-eko zonaldeak, haurrak iritsi ziren lehen aste horretan bi trumoi-eraso egon ziren, kanpamentua lokazti bat bihurtuz. Horregatik, ehun tona klinker eraman zituzten bertako autoritateek. Honek hobekuntza minimo bat ekarri bazuen ere, kanpin dendeak eta oheko arropa guztiak bustita jarraitu zuten egun batzuz (Bell, 1996, 61.or).

Bestalde, kanpamentuko eskaut, irakasle eta laguntzaile orok argi utzi zuten haurrak ezin zirela kanpamentutik atera lehen egun horietan, ordena ezarri arte. Hala ere, euskal ume hauek haurrak izaten jarraitzen zutenez (gerra bat bizi izan bazuten ere), hauetako asko kanpamentutik atera eta ondoko herrietara joan ziren, polizia kotxeen barruan bueltatuz . Ordena mantentzeko, hasiera batean Sams jauna jarri zen kanpamentuaren antolatzaile nagusi gisa, baina, estresak jota, postu hori Henry Brinton-en esku utzi zuen (Bell, 1996, 62.or).

Gutxinaka, ordena ezarri zen North Stoneham-en. Euskal ume hauek sexu berdineko zortzi pertsonako kanpadendetan banatzen hasi ziren (Arrien, 2014, 162.or) eta kanpadendetako pertsona bakoitzak rol aldakorrek hartu zituen (batak oheak egin, besteak zaborra jaso, etab.). Lau kanpadendetako irakasle eta laguntzaile bana zegoen eta, tartean, eskautak kanpamentuaren zainketa orokorraz eta arauen errespetatzeaz arduratzen ziren.

Hortaz gain, kanpamentua gune nazionalista eta gune ez-nazionalistean banatu zela apunte aipagarria da. Izan ere, hasieratik hainbat istilu egon ziren nazionalisten (EAJ-ko gurasoak

zituztenen) eta anarkista eta “gorrien” (komunisten) artean. Zentzu honetan, EAJ-ko haurrek (haur kopuru osoaren erdia, gutxi gora-behera) mesedezko tratua jasotzen zuten; gehien bat alderdi honetakoak zirelako Eusko Jaurlaritzako politikari nagusiak, Euskadiko lehendakaria, finantza- eta barne-ministroa, esaterako (Cloud, 1937, 42-45.orr). Dorothy Legarreta-k jasotako testigantza batek honakoa zion:

“Hiru taldetan banatu gintuzten: Euzko Abertzaleak (EAJ), Gorriak (ezkertiarrek) eta mutil helduak. Hau propaganda txarraren ondorioa izan zen; izan ere, “gorriak” oso pertsona onak ziren, gure salbazioa, finean. (...) Bi asteko tartean, gauzak hobeto antolatuta zeuden. Baina akatsa egin zuten EAJko katolikoak eta ezkertiarrek banantzean. EAJko haurrek kaperak, apaizak, filmak, dantzak, ia imajina daitekeen guztia zuten. Baina guk, “basatiok”, ez genuen ia ezer.

(Legarreta, 1984, 111.orr)

Beraz, BCC-ren, Britainiar Gobernuaren eta kanpamentuko langile eta antolatzaileen helburua ez bazen izan arazo politikoak sustatzea, duda ezina da arazo hauek azaleratzen joan zirela. Finean, euskal haur hauek asko oso politizatuak zeuden. Oso gazteak baziren ere, gerra zibilak zeharo aldatu zituzten haur hauek, urte bat baino gehiagoz egon baiziren bonba artean, gosea pasatzen, gurasoen atxiloteta edo erahilketak eta abar luze bat pairatzen (Benjamin, 2007, 198.orr).

Gainera, kanpamentuan politika alde batera uzteko saiakerak egiten baziren ere, astean bi aldiz kanpamentuko bozgorailuetan ematen ziren berriak kontrako joera bultzatzen zuen, hots, politizazioarena eta erradikalizazioarena. Berri hauek gazteleraz irakurtzen ziren kanpamentuko bozgorailuetatik, eta gudarien erasoaldi eta atzeraldiez informatzeko erabiltzen ziren (Legarreta, 1984, 114.orr). Gudarien erresistentzia oraindik indartsua eta zeharkaezina zela pentsarazten saiatzen ziren hurrei. Hau horrela, haur asko bizkaitarrak ziren, eta Francoren tropak Bizkaiko herri berri batera iristen zirenean, haur hauek bazekiten Bilbo inguratzen ari zirela pixkanaka.

Euskal haurrentzako gerraren eguneratze tamalgarriena ekainaren 19an izan zen. Arratsaldeko seiak aldera, kanpamentuko autoritateek Bilbo Francoren esku erori zela jakin zuten. Hasiera batean, kanpamentuko agintarien artean eztabaida egon zen, albiste hau hurrei helarazteko ala ez eztabaidatuz. Azkenean, MacNamara kapitainak testu bat idatzi zuen, Henry Brinton-ek (kanpamentuko agintariak) irakurri zezan. Testu honen edukia ingeleraz irakurri zuten hasiera batean eta, haur gehienek ez zutelako ulertu, Cortez apaizak gazteleraz irakurri zuen testua (ikus: 7. eranskina). Kanpamentuan bilakatu zen kaosa nabarmena izan zen.

Kanpamentuko agintariek egoera tamalgarriaren aurrean helarazitako lasaitasun deia debalde izan zen. Izan ere, 300 bat haur ateratzen ziren kanpamentutik eta, horietako asko Southampton-eko porturuntz joan ziren, Euskal Herrira bueltatzeko itsasontzi bat hartzeko asmoz. Beste hainbat, kanpamentu inguruko errepide eta basora joan ziren, kaosa sortuz (Cloud, 1937, 46-47.orr). Gaueko hamaika eta erdietan egoera hau baretu zen, eta poliziaren patruila-auto bat bidali zuten basora, bertan zeuden azkeneko haurrak jasotzera.

Zaharragoak ziren haur askok, ohikoa zen bezala, bertako egunkariak lortu zituzten gerrari buruz gehiago jakiteko eta, ekainaren 20an, *Daily Mail* egunkariako azalak izenburu hau zeraman: “*Anti-reds enter Bilbao*”. Dorothy Legarretak elkarriketatutako haur batek zion ingeles gutxi jakin behar zela esaldi hura ulertzeko (Legarreta, 1984, 114.orr). *Sunday Mirror* egunkariak, bestalde, honako artikulua argitaratu zuen egun berean: “*Mass hysteria at Basque Camp. Bilbao falls.*” (Histeria mordoa Euskal kanpamentuan. Bilbo erori da) (*Sunday Mirror*, 1937ko ekainaren 20).

4.6 Hezkuntza esperientzia eta dispertsaketa kolonietara

4.6.1 Baliabide pedagogikoekin eta maistrekin arazoak

Argi geratu zen bezala, kanpamentuko lehen hilabetea zeharo aldakorra izan zen, hainbat faktore tarteko, hala nola zuzendarien aldaketak, gerraren eguneraketek sortutako histeria eta haurren arteko iskanbilak. Egoera honetan, hezkuntza formalak ez zuen pisurik hartu North Stoneham-eko kanpamentuan. Maistra hauen rola, azken finean, haurrak entretenitzera eta kanpamentuaren ordena mantentzera mugatu zen kasu gehienetan.

Hale ere, klaseak emateko saiakerak egin ziren. Rafael de Barrutia euskal haurrak ondo deskribatzen zituen klase hauek, esanez korro batean esertzen zirela eta geografia apur bat ikasten zutela (hau da, non zeuden ulertarazten zieten hurrei, baita zein urrun zeuden Euskal Herritik) (Arrien, 2014, 180.orr). Bestalde, garrantzi asko ematen zitzaion abesbatzari, *zortziko* bezalako kantak abestuz “klase” horietara joaten ziren guztien artean. Hau esanda, klase hauek ez ziren derrigorrezkoak, zeharo inprobisatuak izanik.

Denbora aurrera joan ahala, maistrak ohartu ziren hezkuntzaren garrantziaz, baina, kanpamentu horretan, klase formalak ematea ia ezinezkoa zen, bi arrazoi nagusirengatik: maistra gutxiegi zeuden haur guztientzat eta dozentzia materialik ez zegoen (Iliburuak, arbelak, arkatzak, etab.). Dozentzia materiala bidaltzeko urgentzia ekainaren amaieran hasi zen, iada haur asko kolonietara dispertsatzen hasi zirenean. Londresen Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria zen Jose Ignacio Lizaso-k gutun bat idatzi zion Paris-eko ebakuazio komiteari.

Gutun honetan, Britainia Handiko euskal haurrek zuten arazo pedagogikoaz urduritzen zen Lizaso eta, finean, “Euzkadiko Gobernuaren eta haren Kultura Sailaren irizpideari erantzuten dion plan bati egokitutako eskola-programa” baten inplementazioa exijitzen zuen. Gutun honetan, baita ere, euskararen irakaskuntzaren garrantziaz ohartarazten zen, honakoa esanez: *“ebakuatutako haurren artean euskaldun asko daude, eta komeniko litzateke, Euskal Estatutuaren arauet jarraituz, euskarazko testuak ematea irakasleei, gure gobernuak iada prestatu dituenak”* (Lizaso, 1937a).

Material pedagogikoa presaka eta berandu entregatzea Eusko Jaurlaritzaren akats handi bat izan zen, Jose Ignacio Lizaso-k onartu zuen bezala. Lizaso-ri uda horren amaieran esan zioten material pedagogikoaren bidalketaren arduraduna Alfredo Ruiz del Castaño zela (Eusko Jaurlaritzako kultura sailaren idazkari nagusia) eta, beraz, 1937ko abuztuaren 12an gutun bat bidali zion Lizaso-k Ruiz del Castaño-ri. Bertan, Lizaso-k honakoa zion: *“Londres-eko Fenner Brockway Alderdi Laborista Independenteak euskal haur ebakuatuen hezkuntzarako liburuak eskatzen dizkit. Izugarritzko desastrea da ingelesek haurrekin bidali behar izan genituen liburuak eskatzea. Aparteko premiarekin eskatzen dizut liburuak bidali ditzazun”* (Lizaso, 1937b).

Eusko Jaurlaritzak gai honekiko ardura falta erakutsi zuelako, maistrak berak izan ziren, kasu askotan, arazo honi aurre egin ziotenak. Bide honetan, Maria Learreta eredugarria izan zen hezkuntza materiala lortzeko ardura hartzen. Learreta maistrak, finean, gutun bat bidali zion Pedro Atutxari, 1938ko irailaren 29an, hezkuntzari buruzko zehaztasun eta ohartarazpen batzuk emanez. Learretak, Scarborough-ko kanpamentutik bidalitako gutunean, honakoa zion:

“Kanpamentura iritsi eta egun gutxira, koadernoak eta lapitzak eman zizkiguten, eta aire zabalean, bazkaltzen genuen mahaietan bertan ematen genituen eskolak, goizean bi orduz, eta arratsaldean baita ere. Erregulartasunarekin egindako klaseak emaitzak ematen hasi ziren, baina espedizioak ateratzean suntsitzen ziren emaitzak, klaseak osatzen zituzten taldeak hondatuta baitzeuden haurrak Ingalaterrako hainbat tokitara joan zirenean.

Haurrak joaten ziren aldiro, talde berriak sortu behar izaten genituen klaseetan, eta ahalik eta baliagarriena eta beharrezkoena zena irakasten hasten ginen, eta irakasgai horiei ordu baliagarrienak eskaintzen genizkien. Aritmetika, geometrika eta idazketa ziren gure atxikitzearen gai nagusiak Geroago, klaseak berriro antolatu ziren, eta ni arduratuko nintzen haur helduei zientzia klaseak emateaz, eta egunero 10:15etatik 12:00etara ematen nituen” (Learreta, 1938).

Ilido beretik, beste ardura falta handi batek garrantzia izan zuen maistrengan. Izan ere, maistra hauei soldata finko bat prometituta zitzaien (hilean 250 franko). Hala ere, Ruiz del Castaño-k hainbat kexa jaso zituen irakasleen aldetik. Eta, iada 1937ko irailan, Jose Ignacio Lizaso-ri gutun bat bidali zion kexa hauen berri emanez: *“Hona etorri ziren andereñoak, kontratu batekin etorri ziren. Bertan, hitzeman zuten irakasle-lana egingo zutela hilean 250 frankoren truke (2 libra inguru). Egun batean eta bestean kexatu egin dira, eta ordezkaritza honetara jo dute. Haien eskaerei erantzuteko eskatzen dizuegu. Tratu honi ez diozue jaramonik egin, eta National Joint Committee izan da derrigortasunik gabe txelin batzuk aurreratu dizkiena.”* (Ruiz del Castaño, 1937).

Finean, hainbat hilabeteetan zehar soldata ez jaso ondoren, hainbat maistra, Jose Ignacio Lizaso (gobernuaren ordezkaria Londresen), Leah Manning (BCC-ko ordezkaria) eta Jesus Irarragorri-rekin (kanpamentuko ordezkaria) jarri ziren kontaktuan, arazo honi konponbide bat emateko. Gizarte-laguntzako kontseilaria zen Juan Gracia kontaktu-sare honetaz ohartu zenean, ez zuen ondo hartu. Izan ere, Jose Ignacio Lizasori bidalitako gutun batean, honakoa esaten zuen:

“Andereño eta laguntzaileei dagokionez, haien soldatak erreklamatzeko dituztela eta gainera Leah Manning andrearengana jotzeko diskrezio falta egin dutela jakinarazten didazun laugarren aldia da. Ikusten dut ez dutela bizitzen gure herriak bizi duen arazoa behar duen intentsitatearekin. Finean, ez bazaie ez aterperik ez eta janaririk falta, soldata jasotzeak ez luke hainbesteko garrantzia izan beharko, bereziki jakinik Gobernuak dibisa atzeritar oso gutxi dituela.”

(Gracia, 1937)

Ondoren Hexham-eko koloniar joan ziren irakasleek, hau da, Carmen Basterrechea, Pilar Gutiérrez, Maria Luisa Gonzalez eta M. Arnaiz-ek, beste gutun bat bidali zioten Lizaso-ri urte bereko azaroan, honakoa aipatuz:

“Zuk, gure egoeraren berri izatea nahi dugu. Ez dugu dirurik, eta ezin dugu irabazi; neguko arropa behar dugu, eta Ingalaterran egon eta bost hilabetera hondatu zaizkigun gauza asko ere. Ingalaterrako alde honetan hotz handia egiten du eta ezin dugu udako arropekin jarraitu. Hori dela eta, eskertuko dizugu behar diren neurriak har ditzazula gure soldatak jasotzeko.”

(Basterrechea et al, 1937).

Azkenean, Pedro Atutxa apaiza izan zen soldatak emateaz arduratu zena kanpamentuan eta, Londres-eko Ogasun kontseilaritzaren ordezkaria zen Pedro Albisu izan zen soldatak banatzeko behar zen dirua lortu zuena.

4.6.2 Dispertsaketa kolonietara

Haurrak North Stoneham-eko kanpamentura iritsi zirenean, hasierako plangintzei zegokienez, haien egonaldia bertan aste gutxira mugatuko zen, ondoren kolonia desberdinetara bideratzeko. Hau da, North Stoneham-eko kanpamentua behin-behineko egonaldi baterako toki bat kontsideratzen zen, ahalik eta lehen husteko xedea izanik. Behin behineko kanpamentu honetatik lehen astean bidali baziren ere lehen haurrak kolonia desberdinetara, kanpamentua ez zen guztiz hustu 1937ko iraila amaierara arte.

Zaila da jakitea North Stoneham husteko eman zen denbora luzearen zergatia. Hala ere, hainbat testigantzen arabera, arrazoi nagusi batzuk azpimarragarriak izan ziren. Jose Ignacio Lizasori dagokionez, prozesu motel honen arrazoi nagusia laguntza komite britainiarrei esleitzen zitzaion, izan ere, koloniak prestatzen denbora luzea hartu zuten. Beste arrazoi bat, Adrian Bell-ek puntualizatuta, komentuentatik (kolonia katolikoengatik) izan zen. Finean, Ingalaterrako eliza katolikoak euskal haurrentzako eskainitako koloniak sexu berekoak izatea nahi zuen. BCC-rekin eztabaida luze baten ondoren, (BCC-k ez baizuen nahi sexu bereizketarik komentuetan), azkenean onartu zen sexu berekoak ziren komentuetara bidaltzea 1200 bat haur (Bell, 1996, 69.or).

Bestalde, kolonietara dispertsaketa ez zen era sistematiko batean egin. Hau da, kasu askotan, maistra talde txiki bati kolonia bat esleitzen zitzaion, eta haien ardura bihurtzen zen haur kopuru bat hautatzea kolonia horretara eramateko. Beste kasu batzuetan, kanpamentuko bozgorailuetatik kolonia batera autobus bat aterako zela esaten zuten, horra joan nahi zuen jendearentzat. Horietako kasu batean, honakoa entzun zen bozgorailuetatik: *“Bihar autobus bat aterako da kolonia berri batera Carlisle-en. Inork Carlisle-era joan nahi du?”*. Noski, haurren artean inork ez zekien non zegoen Carlise (Bell, 1996, 70.or).

Guztira, beraz, 100 kolonia baino gehiago izan ziren euskal haurrak hartu zituztenak momentu batean ala bestean, Britainia Handia osoan zehar (Galesen, Ingalaterran eta Eskozian). Batzuk handiak (hainbat kolonietan 120 pertsona baino gehiago izan ziren), beste batzuk txikiak (10 haur soilik). Kolonia desberdinen zerrenda Dorothy Legarretak osatu zuen gai honi buruz idatzitako liburuan (ikus: 8. eranskina), nahiz eta beste kolonia batzuen aipamen xume batzuk ere jaso izan diren, iturri fidagarririk gabe.

4.6.3 Hezkuntza esperientzia: aipamen garrantzitsuenak

Hezkuntzari dagokionez, ezinezkoa da orrialde gutxitan Britainia Handira erbesteratutako haur guztien hezkuntza esperientziari buruzko informazioa ematea, hainbat arrazoi direla medio. Hasteko, kolonia gutxi batzuei buruz soilik dago informazio fidagarria. “Basque Children of ‘37 Association UK” elkartearen web orrialdean, esaterako, 11 koloniei buruzko informazioa dago soilik (gainera, batzutan eduki horrek ez du hezkuntzarekin zer ikusirik). Bestalde, kolonietako hezkuntza, askotan formala izan bazen ere, ez zen homogeneoa izan kolonia batetik bestera. Hau da, maistrek eta haurrek ez zuten hezkuntza-curriculum bat jarraitu. Are gehiago, kolonia gehienek ez zuten material pedagogiko nahikoa “ohiko” klase magistralak aurrera eramateko.

Bestalde, eta arrazoi oso garrantzitsu gisa, etorkizuna zalantzazkoa zen. Alegia, aste batetik bestera haur eta maistra andana koloniaz aldatzen joan ziren arrazoi desberdinak medio, beste batzuk aberriratu ziren, eta beste hainbat (hau da, 16 urte bete zituzten asko) lanean hasi ziren bertan. Gainera, 1939an bigarren mundu gerra hasi zenez (eta Britainia Handiak bertan parte hartu zuenez), etorkizuna are zalantzarriagoa bilakatu zen hainbat kolonietan.

Arazo hauei, maistrek zituzten hainbat arazo gehitzen zitzaaien, Gregorio Arrien idazleak ondo zerrendatu zituen bezala (Arrien, 2014, 320.or).

- Maistrak, oro har, lanez gainezka zeuden; izan ere, ardura pedagogikoa burutzeaz gain, haurrak zaindu eta etxeko lanak etengabe egiten zituzten.
- Oso gazteak ziren eta, sarritan, esperientzia falta sumatzen zitzaaien, bereziki mutil zaharrenekin.
- Beste arrazoi bat ingelesaren jakinmin eskasa zen. Gutxi ziren ondo ikasi zutenak, eta horrek asko zailtzen zuen tokiko batzorde eta langileekin zuten harreman zuzena.

Arrazoi guzti hauengatik, kolonietan erbesteratutako belaunaldiak jaso zuen hezkuntza oso heterogeneoa izan zen. Kolonia batzuk ospe handia lortu zuten bertako hezkuntza-prozesuagatik, beste askok ez zioten hezkuntzari garrantzi handirik eman eta, gehienek, bestalde, ez dute informazio fidagarririk bertan jasotako hezkuntzaren inguruan.

Beraz, Britainia Handira joan zen gernikar belaunaldiaren hezkuntzari buruzko informazio fidagarria eskasa da eta, arrazoi hau da hezkuntza formalari buruzko aipamen gutxi egotea jarraian.

Hau horrela, artikulu, elkarrizketa eta beste hainbat iturri badaude hezkuntzari erreferentzia egiten diotenak. Aldrige-ko koloniako irakasleek, 50 bat euskal haur zituztelarik haien kargu, goizeko bederatzi eta erdietatik goizeko hamaikak eta erdiak arte ematen zituzten klaseak goizero, baita arratsaldetan hiruretatik lauretara (igandetan ez zegoen klaserik). Ikasten zituzten ikasgaiak hauek ziren: ingelera (gramatika eta literatura), matematika, geografia, Espainiako historia, fisiologia eta higieena, dantza eta koroa eta, azkenik, gimnasia (Ingram, 2014).

Vicente Romero Olabarria-k, bestalde, modu eskematikoan kontatzen zuen nolakoa zen euskal haurren eguneroko bizitza 21 haur zituen Theydon Bois herriko kolonian:

“- Egongelan gosaltzen genuen, mahaiaiek elkartzuz, espainiar andereñoek lagunduta.

- Gosaldu ondoren, neskek, mutilen aurretik, ingeleseko eskolak jasotzen zituzten egongela eta mahai horietan bertan.

- Ingeleseko eskolen ondoren gaztelaniaz irakurtzen genuen, baita historia klaseak jaso ere.

- Denbora librean lorategian jolastuz aprobetxatzen genuen. Hasieran, oihana bezalakoa zen, baina pixkanaka-pixkanaka txukunduz joan ginen, baratze bikain bihurtuz.” (Benjamin, d.g.)

Bestalde, Britainia Handiko Oxfordshire probintzian hainbat kolonia zeuden eta, horietatik, Aston herriko *St. Joseph's* kolonia ospetsuenetarikoa bilakatu zen. Alde batetik, noizean behin kolonia honetako haurrek kontertuak jotzen zituztelako hainbat tokitan, hala nola Witney herriko *Church House*-n 1939ko maiatzaren 5an, bertako egunkariak ondo azaltzen zuen bezala (egilerik gabe, 1939ko maiatzaren 5a). Bestalde, mundu osoan ezaguna den eta prestigio handia duen Oxford Unibertsitateko hainbat ikasle joan ziren Aston-eko kolonia honetara praktikaldietako irakasle gisa. Kasu aipagarriena Cora Portillo-rena izan zen. Izan ere, unibertsitatean bertan *Hizkuntza Garaikideak* gradua ikasten ari zela, bertako irakasleek gomendatu zioten Aston-eko koloniarara joatea, bertan gaztelera praktikatu zezan, baita euskal haurrei ingelera klaseak eman ere. Azkenean, astean behin baino gehiagotan hasi zen joaten Cora Portillo, ia-ia bertako irakasle bat bilakatuz (Jump, 2007)

Gales herrialdeko Caerleon herrian kokatuta zegoen *Cambria House* koloniak hezkuntzari eta, oro har, haurren esperientziari, ekarpen positibo bat egin zion 50 bat haur zeuden etxe handi honetan (ikus: 5. irudia). Bertako haurrek, irakasleen laguntzarekin, hilero argitaratzen zen aldizkari bat sortu zuten, herrikoei egiten zutenaren berri emateko. Zorionez, egun, *Cambria House* koloniak aldizkari horietako hainbat zati ditu gorleku haren web orrialdean. Ingeleraz eta gaztelaraz argitaratzen zen aldizkari honek lau eta zazpi orrialde artean izan ohi zituen eta, guztira, lau mila bat aldizkari saldu ziren (Davis, 2011, 59.or).

1939ko apirilean, “*Our education in Cambria House*” (“Gure hezkuntza *Cambria House*-n”) izeneko artikulua argitaratu zuten, bereziki harrigarria izanik bertako lehen paragrafoa eta azkeneko esaldi motza:

Cambria House-n eskolako lan handia egiten dugu, oso beharrezkoa baita egoera honetan.

Gutako batzuk Espainiara itzultzean, agian bonbek suntsitu dute gurea zen eskola. Eta haien etxeak ere erortzeko zorian egon daitezke. Hemen, gehien gustatzen zaigun klasea aroztegi klasea da, eta bertan galeoi zaharren maketak, apaingarriak eta abar egiten ditugu. Astean behin futbola edo gimnasia izaten dugu, eta egunero izaten ditugu ingeles-eskolak, gaztelania, aritmetika eta abar.

Ez gara hona etorri guk dakiguna ahazteko, zerbait gehiago ikasteko baizik.

(*Cambria House Journal*, 1939ko apirila)

Hezkuntza formalaz haratago, *Cambria House*-ko euskal haurrak zeharo ospetsuak bihurtu ziren haien futbol taldeagatik (ikus: 6. irudia). “*Basque Boys AFC*” futbol taldea eratu zuten bertako hainbat mutilek eta, hain ziren onak, Hegoaldeko Gales-eko “*South Wales Argus*” egunkariak “*The Basque Wonder Team*” (“Euskal talde liluragarria”) eta “*The Unbeatable Basque Boys*” (“Euskal garaitezinak”) ezizenak jaso zituztela (Nation Cymru, 2021eko azaroaren 21).

Bestalde, kolonia honi aparteko ospea eman ziona dantza-kontzertuak izan ziren. Gales hegoaldean zehar hilean lauzpabost emanaldi egin zituzten (tartean Llanelli, Swansea, Neath eta Briton Ferry-n). Kontzertu hauetan, hainbat kanta eta dantzaren interpretazioak egin ziren, hala nola *Aurreskua* eta Espainiako jota. Ekitaldiei amaiera bi kantek eman zien beti: *El himno de riego* (espainiar errepublikaren ereserkia) eta Gales-eko ereserki nazionala (Davies, 2011, 62.or). Ekitaldi hauek oso garrantzitsuak izan ziren, baita ere, koloniak funtzionatzeko behar zuen dirua lortzeko.

Kultura-ekimenei dagokienez, beste hainbat dantza eta koro talde egon ziren Britainia Handian zehar emanaldiak egiten. Adierazpen artistiko hauen artean aipagarrienak “Eresoinka” eta “Elai-Alai” taldeak izan ziren. “Eresoinka” taldea, abesbatza, dantza eta arte plastikoa biltzen zituen konpainia izan zen. Parte hartu zuten haurren kopuru totala ezezaguna bada ere, koroan 70 haurrek parte hartzen zuten. Dantzen artean, bestalde, garaiko hainbat euskal dantza ospetsu egin ohi ziren emanaldietan, tartean makil-dantza, sagu-dantza eta ezpata-dantza (Arrien, 1983, 270.or). Britainia Handiko kolonietan sortu ez bazen ere talde hau, bertako hainbat tokitan eman zituzten emanaldiak. “Elai-alai” taldea,

bestalde, Segundo Olaeta-k zuzendutako dantza eta abesbatza taldea izan zen. Frantziako Bry-Sur-Marne kolonian sortu eta entseatzen bazuten ere, hainbat herrialdeetan eman zituzten emanaldiak (bereziki Frantzian eta Belgikan).

Gernikar belaunaldia Britainia Handira iritsi eta bi urtera, 1939an, bigarren gerrate mundiala hasi zen. Ezinezkoa da jakitea zenbat izan ziren gerra hasi ondoren bertan geratu ziren haurren kopurua, finean, gai honi buruz asko estudiatu duten autoreen artean ere kopuru desberdinak maneiatzen baitira. Hala ere, estimazio batera iritsi gaitzke iturri desberdinak kontuan hartuta. 1939ko amaiera aldera, BCC-ari dagokionez, 501 haur geratu ziren bertan, haien gurasoek ezaugarri zehatz batzuk zituztelako (ikus: 9. eranskina). Dorothy Legarreta-ren arabera, bestalde, 1940ko erdialdean 460 zeuden Britainia Handian (ikus: 10. eranskina).

La Habana lurruntzira igo zen haur bakoitzak istorio berdingabe bat bizi izan zuen atzerrian, batzuk pozgarria, beste batzuk lazarria. Asko, bertan bizi, zahartu eta hil ziren. Euskal diasporaren enegarren kapitulua osatu zuen gernikar belaunaldiak Britainia Handian, eta irakasle euskaldunoi dagokigu haien memoria gogora ekartzea eta iraunaraztea.

5. IKERKETAREN HELBURUAK

Aurreko ataletan burututako ikerketa lan honen helburuak honako hauek dira:

- Diasporaren esanahia eta zergatiak aurkeztea, baita zehazki euskal diasporaren historiaren zehaztapen batzuk ematea.
- Euskal diaspora kasu zehatz baten aurkezpena egitea, kasu horren ikerketarako erabiliko den terminologian apunte batzuk azaleratuz.
- Lehen eta bigarren mailako iturri sozio-historikoetatik baliatzea euskal diaspora kasu honen beharrezko azalpenak emateko. Baita ere, haurren eta maistren berebiziko garrantzia azpimarratzea, beste diaspora kasu gehienetan ez baitira izan protagonistak.
- Euskal diaspora kasu honek hezkuntzarekin duen zer ikusia azpimarratzea. Zuzenean, honen garrantzia eta gaurkotasuna erabiltzea lehen hezkuntzako ikasgelan, hura demostratuko duen esku-hartze erreal bat erabiliz. Kulturartekotasunak sustatzen dituen balioak barneratzea (kulturen arteko ulkerak, elkarreragina eta elkar-laguntza) eta haien bitartez jokatzeko. Lehen hezkuntzako curriculum berriak ondo dion bezala, “Migratio-mugimenduak oinarri dituen mundu globalizatu honetan, kultura desberdinen ekarpenekin aberasten da ondare komuna” (Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saila, 2023, 78.or).

6. METODOA

Ikerketa egiteko metodoa galdera baten bidez planteatu da, honakoa dena: laguntzen al dio euskal diasporaren historia ezagutzeak EAEko lehen hezkuntzako azken zikloko ikasleen oinarritzko hezkuntza-garapenari?

Metodoaren galdera horri erantzuteko, lehenik, ikerketa sozio-historikoa erabili da 3. atalean (diasporaren kontzeptua eta terminologia) eta marko teorikoan. Horretarako, erabilitako iturriak prentsa artikulak, artikulak akademikoak, liburuak, dokumentu ofizialak, kargu politikoaren arteko gutunak, elkarrizketak, argazki eta dokumentu historikoak izan dira, besteak beste. Iturri mota eta kopuru andanak, zentzu honetan, marko teorikoaren laburpena zaildu du eta, ondotik, informazioaren esposaketa koherente batera behartu du ikerketa bera. Ikerketa sozio-historikoarekin bat, baita ere, “BCA 37”-eko (*Basque Children’s Association of ‘37*) bozeramailea (eta gernikar belaunaldiko euskal haur baten semea) den Simon Martinez-ekin bideokonferentzia bidezko sakonezko elkarrizketa bat burutu nuen, gai honi buruzko hainbat informazio jasoz.

Ikerketa sozio-historikoz beste, ikerketa kualitatibo bat ere burutu da. Gasteizko P. I. Barrutia eskolan 2022-2023 ikasturtean burututako behaketak eta, bereziki, esku-hartzeak metodoan erabilitako galderari erantzun positibo bat eman dio.

7 ESKU-HARTZEA

7.1 Esku-hartzearen justifikazioa

Practicum III esperientzian, irakasle-ikasle gisa ardura handienetako bat norberak burututako esku-hartze bat aurrera eramatea da eta, hasieratik, nik burututako esku-hartzea GrAL-arekin lotura izatea nahi izan nuen. Hau horrela, kontuan hartu beharreko hainbat faktore zeuden hau burutu ahal izateko, baita beste hainbeste arrazoi ere.

Pedro Ignacio Barrutia eskolako (ala Barrutia eskola, haiek deitzen zioten bezala) bosgarren mailako klase honetan 25 ikasle zeuden eta, gelaren diagnostikoa burutu nuenen, argi geratu zen kultura-aniztasun handia zegoela. Zentzu honetan, eskolako tutoreak berak esan zidan eskola hau Gasteiz osoan herritartasun gehien zituen eskola zela (27 nazionalitate desberdin). Ildo beretik, ikasle gehienak estatuan jaioak baziren ere, jatorri atzerritara zuen klasearen erdiak baino gehiagok, jatorrien gehiengoa Magreb-eko herrialdeak (Maroko eta Arjelia), Afrika erdiko herrialdeak eta Hegoamerika izanik. Zuzenean, beraz, premiazko

garrantzia zuen nire esku-hartzean kultura-aniztasuna eta diaspora jorratuko zuen gai bat hautatzeak.

Gainera, nire praktikaldietako lehen egunean, Amets Arzallus bertsolari eta idazlea etorri zen. Izan ere, ni iritsi baino lehenago, bosgarren mailako klase honetako ikasle orok haren “Miñan” deituriko liburua irakurri zuten. Liburu hau Ibrahima-ren istorio erreala da, eta Ekuatoriako Ginea-ko hiriburutik Bidasoako mugara arte burututako ibilbidea kontatzen du (nola gurutzatu zuen basamortua, bahitzaileekin topoa, gosea, egarria eta gainontzeko egoera tamalgarriak azaleratuz). Honek, azken finean, lotura zuzena izan zuen nire proiektuarekin.

Honetaz gain, ikasleen euskarako testu-liburuan Pablo Picasso-ren “Guernica” koadroaren argazki bat agertzen zen, honi buruzko jardura xume batekin. Honek, zorionez, koadroa egitearen arrazoen gerturatze bat eskaini zien ikasleei.

Bestalde, klasearen diagnostikoa egiterakoan argi geratu zen klasearen euskara maila kaxkarra orokorrean (bereziki irakurmen-ahalmena eta gramatikarekiko jakinmin orokorra). Finean, ikasten ziren beste bi hizkuntzak (gaztelania eta ingelera) erabili ahal bagenituen ere esku-hartzea burutzeko garaian, premiazkoa bihurtu zen euskaraz egitea soilik, haien hizkuntza-gaitasun orokorra hobetzearen.

Irakaslearekin bat-etortze batera iritsi nintzen esku-hartzea planifikatzeko garaian. Finean, nik burutu nahi nuen gaia argi nuen eta, irakasleak, bestalde, ikasleentzako onuragarriak izango liratezkeen ikasgaiak sartu nahi zituen. Euskaraz soilik egingo genuela argi utzi genuenean, irakasleak aipatu zuen arte-hezkuntzako ikasgaia ere sartu beharrekoa zela. Izan ere, euskara-maila eskasak sarritan eragiten zuen arte-hezkuntzako klaseetan euskarako liburuak berrartzea, ikasgai honetako jakintza eta eskakizunetan aurrera egiteko.

Azkenik eta, esku-hartzearen justifikazioarekin amaitzeko, aipagarria da ikastetxeko tutoreak izan zuen lausotasuna esku-hartzearen programazioak hainbat saio izan zedin. Hau, finean, hiru arrazoi nagusirengatik izan zen:

1. Ikasten zeudenarekin, testu-liburuekin eta garatu beharreko konpetentziekin zer ikusia duen esku-hartze bat zenez, lasai asko utzi zuen saio hainbat hartzen hau aurrera eramateko.
2. Haren gomendioa jarraitu ondoren, bigarren hiruhileko ebaluazio garaia ostean burutu zen; alde batetik, denbora gehiago izango genukeelako (saio gehiago) eta,

bestetik, ikasleak zeharo lasaiago egongo zirelako esku-hartzean pentsatzeko (azterketak iada eginak zituztelako).

3. Tutoreak esan bezala, konfidantza osoa zuen hainbat saio burutzen uzteko. Izan ere, azken hilabeteetan zehar saio asko aurrera eramane nituen nerak ganoraz eta, beraz, ez zuen arazorik saio asko eratzen uztearekin.

7.2 Esku hartzearen helburuak

Esku-hartze hau burutzeko hainbat gauza hartu ziren kontuan: euskal diasporaren kontzeptua eta kasu honen zehaztapen batzuen ezagutza gidari izatea, eskolako eta ikasgelako errealitatearekin lotura izatea, ikasgaiekin eta curriculum-arekin lotura izatea eta, azkenik, lehen hezkuntzako graduako “Kulturartekotasuna” MINOR-aren balore eta ezagutzak jarraibide gisa hartzea.

Gertutik, baita ere, esku-hartze hau egungo munduko erronkekin erlazionatzea helburu nagusi bat ere bihurtu zen; izan ere, zentzu gutxizkoa izango litzake euskal diaspora kasu bat aztertzea, gaur egungo gainontzeko diaspora kasuekiko berdintasunak eta desberdintasunak bilatu gabe.

Helburuekiko apunte orokor batzuk eman ondoren, komenigarria litzake esku-hartzearen helburu espezifikoak ezartzea:

- Euskal diaspora erabiliz norbera ezagutzea, baita gaur egungo munduaren erronkak ulertzea ere. Zentzu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko lehen hezkuntzako curriculum berrian, “Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza” ikasgaiaren ataleko lehen hezkuntzako hirugarren zikloan, “Gizartea eta lurraldeak” deritzon oinarritzko jakintzek ondo barnebiltzen dute azken hau: “Migrazioak eta kultura-aniztasuna. (...) Biztanleriaren mugimendua eta haren bilakaera. Migrazio-mugimenduak eta kultura-aniztasunaren aintzatespena” eta “Giza eskubideen eta haurren eskubideen printzipioak eta balioak. Eskubideen eta betebeharren arteko lotura” (Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saila, 2023).
- Gainontzeko hainbat ikasgaietan (hala nola artearen hezkuntza, euskara eta matematikan) oinarritzko jakintzak eta trebetasunak garatzea, euskal diasporarekin zer ikusia duten jardueren bidez.
- Hezkuntza-curriculum berria aipatu badut ere, esku-hartzea burutu nuen garaian Heziberri 2020 curriculum-a zegoen indarrean eta, beraz, helburu nagusien barne

curriculum honek ezartzen zituen oinarritzko zehar-konpetentzia eta diziplina barneko konpetentziak garatzea zen (Heziberri, 2020) (ikus: 11. eranskina).

- Kasu hau erabiliz etorkizunean gai honekiko pentsamendu kritiko eta sortzailea garatzea.

7.3 Esku-hartzearen programazioa

Diseinua egiterako garaian, lan honen aurreko zatiko hainbat atal hartu behar izan nituen kontuan programazioa bera egiteko. Geroantzean, programazioko saio hauek aldaketak jasan bazituzten ere, zorionez, saio guztiak burutu ahal izan nituen (saio bakoitza 55 minutu ingurukoa izan zen), ondorengo atalean ikusiko diren emaitzekin. Programazio laburtuak, beraz, itxura hau hartu zuen:

- Lehen saioa: Gaiaren aurkezpena eta gerturapena
- Bigarren saioa: Gaiari buruzko ulermen-irakurketa kritikoa galderekin
- Hirugarren saioa: Baliabide digitalen aurkeztea eta galderen erantzunak ematea
- Laugarren saioa: Matematikako buruketen eraketa
- Bosgarren saioa: Matematikako buruketa bat sortzeko saioa
- Seigarren saioa: “Guernica” koadroaren aurkezpena
- Zazpigarren saioa: “Gure Gernika”-ren eraketa
- Zortzigarren saioa: “Gure Gernika”-ren aurkezpena
- Bederatzigarren eta azkeneko saioa: proiektuari buruzko hausnarketa eta ebaluazioa.

7.4 Esku-hartzearen garapena

Lehen aipatu den bezala, saioaren diseinuaren (edo programazioaren) eta errealitatean gertatutakoaren arteko desberdintasunak egon baziren ere, saio guztiak burutu ziren.

Lehen saioan, nerak prestatutako aurkezpenarekin hasi aurretik, hainbat galdera egin nituen, hurrek zuten gaiari buruzko ezagutza-maila jakiteko eta gaira hurbilketa bat egitearren. Galdera nagusia honakoa izan zen: “zer gertatu zen Espainian 1936tik 1939ra?” (harrigarria bada ere, klaseko ikasle askok gerra zibila entzuna zuten eta zeharo ondo erantzun zuten). Zuzenean, ikasleek erantzun zehatzak jakin ezin zezaketen galdera batzuk egin nituen, ondoren erantzunak emateko:

- Nora joan ziren umeak gerra garaian?
- Zenbat umeek alde egin zuten? Zenbat urte artean zituzten?
- Nola joan ziren atzerrira? Atzerrian, non geratu ziren umeak?

Galdera zail hauei erantzuna emateko, bada, aurkezpen bat burutu nuen. Bertan, argazki askoren laguntzaz, azalpenak eman ziren. Zuzenean, aurkezpena amaitzerakoan, galderentzako tarte bat utzi zen eta, tarte honetan argi geratu zen bezala, gaiak eta aurkezpenak ikasleengan interesa piztu zuen (ikus: 7. irudia).

Bigarren saioan, ulermen-testu baten irakurketa eta galderen erantzute kritiko bat egin zuten ikasleek. “La Habana” ontzian euskal umeek izandako bizipenei buruzko irakurketa bat izan zen, nerauk prestatua. Bikoteka egin zen ulermen-testu hau, noski, haien euskara-mailara egokitu zen (ikus: 8. eta 9. irudiak, hurrenez hurren).

Hirugarren saioa aurrera eramateak soilik esan nahi zuen ikasleen interesekoa zela gaia eta, ikusi zen bezala, horrela izan zen. Beraz, saio honetan, hainbat bideo, argazki eta azalpen azaleratu nituen gai zehatz honi buruz, gaiari buruzko jakinmina areagotzeko.

Laugarren saioan, matematika ikasgaiarekin lotu izan nahi zen esku-hartzea. Hortaz, gaiarekin zer ikusia zuten buruketak eratu ziren. Bosgarren saioa zuzenki egon zen lotuta aurrekoarekin. Izan ere, matematikako ikasgaiari burutu zen eta, aurrekoa bezala, buruketekin lotu zen gaia. Kasu honetan, kontrara eta lehen aipatu den bezala, buruketak haiek sortu zituzten eta, jaso ondoren, ausaz banatu ziren, besteek egin zezaten.

Seigarren saioan, esku-hartzearen muinarekin sartu ginen. Picasso-ren “Guernica” koadroaren berrinterpretazioa egin aurretik, komenigarria litzakeela zirudien koadroari buruzko azalpen xume batzuk ematea, berrinterpretazioa egiterako garaian, jakin zezaten zer eta zergatik zeuden marrazten eta margotzen, zentzua emanez. Lehen aipatu den bezala, ikasleek bazekiten zer edo zer koadroari buruz eta, beraz, zazpigarren saioarekin sartu ginen. Saio honetan, koadroaren berrinterpretazioa nola burutuko genuen azaldu nuen. Honetarako, Picasso-ren koadroaren fotokopia bat eman genion talde bakoitzari, A3 tamainan. Ondoren, talde bakoitzak bost zatitan banatu zuen koadroa, taldekide bakoitzak zati bat egin zezan. Argi geratu zen egin behar zutena ez zela koadroaren kopia huts bat, berrinterpretazio bat baizik. Honela, haien irudimenari hegala emateko aukera oparoa zen. Zentzu honetan, norberak “nahi zuena” marraztu eta margotu zuen, parametro batzuen artean (zer ikusia izan behar zuen koadroarekin). Horrela, lehenik arkatzak (marrazteko) eta ondoren errotuladoreak erabiliz, norberak haren zatitxo originala egin zuen (ikus: 10. irudia).

Asko gustatu zitzairen azken zati hau, arte-hezkuntzak asko motibatzen zituztelako. Gainera, denborarik ez genuen izan koadro guztia eratzeko saio bakarrarekin. Beraz, zortzigarren saio bat bideratu genuen, guztiek bukatu zezaten eta, ostean, taldekide guztien zatiak batzeko eta izenburua jartzeko, aurkezteko prest eduki zezaten.

Guztiek bukatu zutenean, bederatzigarren saioarekin hasi ginen, aurkezpenen saioarekin. Azaldu zen moduan, taldekide bakoitzak haren zatia azaldu zuen, baina, ondoren, talde bakoitzak zentzu kolektibo bat eman zion haren koadroari. 11. eta 12. irudian ikus daitezke “Gure Gernika” koadroen bi adibide.

Hamargarren saioa burutzeko ideia nagusiak izanik ere, zehaztapen handirik ez zegoen. Saio osoa gehiegi izan litzake ebaluazio bat egiteko. Baina, azkenean, haiek iruzkin asko eduki zituzten komentatzeko, baita esku-hartzeari buruzko galdera batzuk erantzun ere. Finean, beraz, hortan oinarritu zen esku-hartzearen ebaluazioa. Klase osoaren artean egindako koebaluazio eta autoebaluazio bat izan zen, non ikasleen iritzia eta sentipenak jaso ziren. Ikasle guztiak eroso sentitu ziren esku-hartze osoan zehar, haiek esan zuten bezala. Izan ere, egindako jarduera guztiak norberaren mailara egokitu ahal izan ziren eta, bestalde, jarduera gehienak ez ziren indibidualak izan, adiskideen arteko elkarreraginaz baliatuz. Ebaluazio hau, beraz, borobil batean eserita eta bakoitzaren iruzkinak jasota burutu zen. Hortaz, ez zen notarik izan, ez errubrikarik ere.

8. ESKU-HARTZEAREN EMAITZAK

Aurreko atalean esku-hartzearen garapenaren eboluzioa azalerazi bada ere, garrantzitsua da emaitza hauei buruzko hausnarketa batzuk plazaratzea. Hasteko, esku-hartzea burutu ondoren, ikasleek, ikastetxeko tutoreak, baita praktiketako tutoreak esan zidatenagatik, ohartarazi nintzen benetan euskal diaspora lehen hezkuntzako klase batean lantzearen garrantziaz. Euskaldunok historian zehar migratzaileak izan garela (eta oraindik bagarela ere) ulertarazteak eragin handia izan zuen ikasleengan. Ez soilik gure historiari ohartarazi zitelako, baizik eta egungo testuingurua ulertzeko aukera bikaina bilakatu zelako haienentzat. Gainera, migratzaileekiko (eta finean, migrazioekiko) askok zuten irudi distortsionatua aldatzea lortu zen esku-hartze honen bidez. Alde batetik, migratzaileen eskuetatik kanpo dauden faktoreek eragiten dutelako lekualdatze hura eta, bestetik, euskal diasporaren kasu honekiko lotura zuzena aurkitu zezaketelako; hots, euskal herrian hezitako haien adinako haurrak zirelako protagonistak.

Esku-hartzearen emaitzekin jarraituz, curriculum zaharrarekin (Heziberri 2020) burutu bazen ere proiektu hau, dudaezina da curriculum berrian eta egungo hezkuntzan zati garrantzitsu bat har zezakeela euskal diasporaren gaiak. Aurreko ataletan aipatu badira ere lotura curricular zuzenak, nire ustez hezkuntza etengabe aldatzen eta eguneratzen doan zerbait da eta, zuzenean, curriculum berrira moldatu ahalko litzakeen proiektu bat izan da.

9. ONDORIOAK

Hezkuntzak errealitateko erronkak bere baitan hartu behar dituelako, euskal diasporaren gaiak berebiziko garrantzia hartu beharko luke gure hezkuntzan. Azken iruzkin honen justifikazioa da, finean, curriculum berriak duen egungo erronkei buruzko atala, natura- eta gizarte-kultura arloetan egiten dietelako kontribuzioa. Honekin lotuta joango litzake, baita ere, lan honek egiten dion ekarpena hiritartasun globalaren lanketari lehen hezkuntzako ikasgelan. Zentzu honetan, baita ere, kasu honek pentsamendu historikoa eta kulturartekotasunaren balioak garatzeko tresna gisa dela esango nuke.

Lanaren muina (hots, kasuaren ikerketa edo marko teorikoa), era berean baloratuko nuke. Zaila bilakatu da gai honi buruzko informazio zehatza bilatzea, kasu konkretu honen lehen mailako iturriak urriak baitira eta, bestalde, informazio iturrien lorpena ez delako erraza izan (hala nola atzerriko udalekin kontaktuan jarri behar izatea, Southampton-eko udala, adibidez). Hori horrela, euskal haurren espedizioaren zehaztapenak eta hezkuntza esperientzien oharra ondo sintetizatu ditudala esango nuke.

Ondorio orokor gisa, kasu honen garrantzia orrialde hauen bidez helaraztea lortu dudala esango nuke eta, finean, lanaren helburua hori izan da. Hau da, euskal diasporaren kasu zehatz baten ikerketak eta honen erabilerak lehen hezkuntzazko klase batean duen garrantzia azaldu, azpimarratu eta justifikatu dudala esango nuke. Beste era batera, euskal diaspora kasu honek gizartean izan dezakeen kontribuzioa azpimarratu dudala esango nuke. Balio dezala lan honek, beraz, ilunean geratu diren beste euskal diaspora kasu askoren ikerketa berrartzeko baliabide pedagogiko gisa, kasu hauek duten garrantziaz ohartaratu gaitezen, migratu duten euskaldunen memoria eta identitatea berreskuratuz eta mantenduz.

10. MUGAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Marko teorikoari dagokionez, informazio, aipu eta bestelako azalpen asko moztu ala eranskinetan sartu behar izan ditut. Honakoa, Gradu Amaierako Lanaren orrialde kopuru maximoa ez gainditzeko izan da sarritan. Hortaz, informazioaren hautaketa neuk egin behar izan dut eta, finean, nahasmena sor izan dezake irakurlearengan. Hala ere, autokritika hau egiteaz gain, esango nuke Gradu Amaierako Laneko idatzizko txostenaren luzeraren arrazoiaren anbiguetateari ere kritika bat dela, muga bat izan delako lanaren eraketan.

Bestalde, hobetzeko proposamena izan daiteke euskal haurren hezkuntza esperientzia modu sistematikoan eratzea. Honek, abantailak eta desabantailak ekar ditzake marko teorikoan: Abantailari dagokionez, hezkuntza esperientzia desberdinen alderaketa edota bat-etortze batera eraman ahal gaitzake informazio hori modu sistematikoan (taula baten bidez, adibidez) estrukturatzeak. Hala ere, nire erabakia izan da hau horrela ez egitea. Finean, informazio gutxiegi dago kanpamentu eta kolonia desberdinen hezkuntzaz, zuten ordutegiaz eta ikasgaietaz haratago. Beraz, aberastasun handirik ez luke lortuko hare-informazio hori modu estrukturatu batean aipatzeak.

Etorkizunera begira, bestalde, esku-hartzeak hainbat hobekuntza jasan litzake. Esaterako, euskal diaspora kasu batean zentratzeaz gain euskal diasporak historian zehar izan dituen beste kasuen aipamen batzuk ere ager liratezke. Bestalde, irakaslearen (kasu honetan nire) programazioan hainbeste oinarritzen den esku-hartze bat ez izatea ondo legoke. Alde batetik, ikasleek autonomia gehiago izango luketeelako jarduerak egiteko garaian eta, bestalde, haien ekarpenek aberastu ahalko luketelako esku-hartzea. Hau horrela, gai oso zehatz eta haientzat ezezaguna izanik, normala iruditu zitzaidan nik burutzea jarduera guztiak eta, gainera, Practicum III-ko esku-hartzea izanik, ni neu izan behar nintzen esku-hartzea burutzen zuena.

Hau guztia azalduta, esango nuke lan honen helburua etorkizunean betetzea irakasleoi dagokigula; hots, kulturartekotasunaren baloreen bitartez eta hezkuntza-curriculumaren atalak jarraituz euskal diasporari buruz ikastea.

11. BIBLIOGRAFIA

- 77/2023 Dekretua (Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saila). Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. 2023ko maiatzaren 30a.
- Alpert, M. (1984). Humanitarianism and Politics in the British Response to the Spanish Civil War, 1936-1939. *European History Quarterly*
- Apaolaza, X., Ascunce, J. eta Momoitio, I. (2000). Hirurogei urte geroago. Euskal Erbestearen Kultura. Editorial Saturrarán
- Arrien, G. (1983). Generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares 1932-1940. Colectivo Pedagógico Onura.
- Arrien, G. (2014). ¡Salvad a los niños! Historia del exilio vasco en Gran Bretaña, 1937-1940. Sabino Arana Fundazioa
- Ascunce Arrieta, J. (2008). Exilio y universidad (1936-1955). Saturrarán
- Azcona, J., Muru, F., García-Albi de Biedma, I. (1996). Historia de la Emigración Vasca al Uruguay en el Siglo XX. Montevideo: Ministerio de Educación y Cultura, Archivo General de la Nación.
- Barkham, S. (1989). The Basque Coast of Newfoundland. Plum Point, Newf.: Great Northern Peninsula Development Corporation.
- Basterrechea, C., Gutierrez, P., Gonzalez, M. eta Arnaiz, M. (1937ko azaroaren 2). [Jose Ignacio Lizasori bidalitako gutuna].
- Bell, A. (1996). Only for three months: Basque children in exile. Mousehold Press.
- Benjamin N. (2007). Recuerdos: Niños vascos refugiados en Gran Bretaña. Mousehold Press.
- Benjamin, N. (datarik gabe). Woodberry, the colony at Theydon Bois. <https://www.basquechildren.org/-/docs/colonies/theydonbois/theydonboiswoodberry>
- Benjamin, N. eta Kirkpatrick, C. (datarik gabe). El vapor 'Habana': el viaje desde Bilbao y la llegada a Gran Bretaña. <http://www.basquechildren.org/-/docs/articles/sshabana-s>
- Bieter, J. (2005). Un legado que perdura: la historia de los vascos en Idaho. Eusko Jaurlaritza
- Bilbao, J. (1992). América y los Vascos. Bilbo: Deia eta Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza
- Buchanan, T. (1997). Britain and the Spanish Civil War. Cambridge University Press.
- Cambria House Journal (1939ko apirila). Our education in Cambria House. [Blog bateko mezua]. Cambria House Journal extracts. <https://www.caerleon.net/cambria/basque/page7.html>
- Caro Baroja, J. (1971). Los Vascos. Ediciones ISTMO.
- Cloud, Y. (1937) The Basque Children in England.
- Cohen, R. (1997). The Politics of Migration. Edward Elgar Publishing

- Collins, R. (1986). The Basques. Basil Blackwell
- Concert for Basque children in Church House, Witney. (1939ko maiatzak 5). Witney Gazette. 6.
- Davis, H. (2011). Fleeing Franco. How Wales gave shelter to refugee children from the Basque Country during the Spanish Civil war. University of Wales Press.
- Douglass, W. eta Bilbao, J. (1975). Amerikanuak: Basques in the New World. Reno: University of Nevada Press
- Eizaguirre, D. (1999). Corazón de cartón. Argitalpen partikularra
- El “Habana”, en viaje directo de Bilbao a Southampton, conducirá a 4.000 niños vascos. (1937ko maiatzaren 20). Euzkadi, 1.or.
<http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/12324#&gid=1&pid=6>
- Eusko Jaurlaritza (exilioan), 1938ko martxoaren 18a. Emigración vasca. 5-6.orr
- Evans, C. (2021eko azaroaren 21). How a Basque refugee football team overcame tragedy to take Wales by storm. Nation Cymru.
<https://nation.cymru/sport/how-a-basque-refugee-football-team-overcame-tragedy-to-take-wales-by-storm/>
- Fontes, I. (2024). Gernika, 1937: el bombardeo terrorista cómo arma de guerra. El Diario.
https://www.eldiario.es/politica/gernika-1937-bombardeo-terrorista-arma-guerra_129_11337634.html
- Gracia, J. (1937ko abuztuaren 2). [Jose Ignacio Lizasori bidalitako gutuna].
- Ingram, L. (2014). Aldridge Colony.
<https://www.basquechildren.org/-/docs/colonies/col044>
- Izenik gabeko artikulua. (1937ko maiatzak 24). The Daily Telegraph. 13-14.orr.
- Jackson, G. (1965). The Spanish Republic and the Civil War. Princeton University Press
- Jacob, J. (1994). Hills of Conflict: Basque Nationalism in France. Reno: University of Nevada Press.
- Jump, M. (2007). The Basque Refugee Children in Oxfordshire during the Spanish Civil War: Politically Charged Project or Humanitarian Endeavour?. Oxoniensia. Oxfordshire Architectural and Historical society. 11-12.
- Learreta, M. (1938ko apirilaren 29). [Pedro Atutxari bidalitako gutuna].
- Legarreta, D. (1984). The Guernica Generation. Reno: University of Nevada press
- Lizaso, J. (1937ko abuztuaren 12). [A. Ruiz del Castañori bidalitako gutuna].
- Lizaso, J. (1937ko ekainaren 26). [Ebakuazioaren Komiteari bidalitako gutuna].
- Luis Aguirreren egunerokoa (1937ko maiatzaren 3).
- Manning, L. (1970). A life for education: An Autobiography.
- Mass hysteria at Basque Camp. Bilbao falls. (1937ko ekainaren 20). Sunday Mirror.
- Matthews, H. (1973). Half of Spain died: A Reappraisal of the Spanish Civil War. New York: Scribner.

- Moya, J. (1998). *Cousins and Strangers: Spanish Immigrants in Buenos Aires, 1850–1930*. Berkeley: University of California Press
- National Joint Committee. (1937ko maiatzaren 5). Minutes.
- Ojanguren, A. (1990). *De procónsul británico en Bilbao a delegado vasco en Roma*. Sabino Arana Fundazioa.
- Payne, S. (1975). *Basque Nationalism*. Reno: University of Nevada
- Pérez de Arenaza, J. eta Lasagabaster, J. (1991). *América y los Vascos: Presencia Vasca en América*. Gasteiz: Kultura Departamentua: Eusko Jaurlaritza
- Por los niños y las mujeres vascos. (1937ko maiatzaren 1). Euzkadi, 4.or. <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/12324#&gid=1&pid=4>
- Rubio, J. (1977). *La emigración de la Guerra Civil de 1936-1939*. Editorial San Martín
- Ruiz del Castaño, A. (1937ko irailaren 6). [Jose Ignacio Lizasori bidalitako gutuna].
- Ruiz-García, A. (2002). *Migración oaxaqueña, una aproximación a la realidad*. In Guzmán Castelo, E. (2005). *Logros y retos del Frente Indígena Oaxaqueño Binacional: una organización para el futuro de los migrantes indígenas* (Tesis Licenciatura). Universidad de las Américas Puebla, México. catarina.udlap.mx/u_dl_a/tales/documentos/lri/...c_e/capitulo1.pdf
- Sabín, S. (2011). *The “niños vascos”. Memory and memorialisation of the Basque refugee children of the Spanish Civil war in the UK*. Eusko Jaurlaritza
- Southworth, H. (1977). *Guernica! Guernica!: a study of journalism, diplomacy, propaganda, and history*.
- Steer, G. (1938). *The Tree of Gernika: A Field Study of Modern War*.
- Totoricagüena, G. P. (2015). *Identity, culture, and politics in the Basque diaspora*. University of Nevada Press.
- Tusell, J. (1988). *En torno a la guerra civil española*. Fundación Universitaria San Pablo CEU.
- Tusell, J. eta Garcia, G. (1993). *El catolicismo mundial y la guerra de España*. Biblioteca de Autores Cristianos.
- Una diputada conservadora. La duquesa de Atholl se suma resueltamente a los defensores de la España republicana. (1936ko abenduaren 3). Euzko Deya.
- Uriarte, C. (1976). *Bombas y mentiras sobre Guernica: acusa su arquitecto municipal cuando la guerra*.
- Warwick University. (datarik gabeko txostena). MRC, W. Roberts papers, Mss 308/3/NJC/1.

12. IRUDI BILDUMA

1. Irudia: Sobietar Batasunera 1937an joandako euskal haur baten fitxa, Euzkadiko gizarte-laguntza sailak emanda.

Iturria: [Ibáñez Laporta-ren exilioaren fitxaren argazkia, Sociedad de Ciencias Aranzadi] (d.g.)
<https://ianasagasti.blogs.com/.a/6a00d8341bf85353ef022ad378ceff200c-pi>

Formulario de expedición social del País Vasco. El documento contiene una fotografía de un niño a la izquierda. El texto principal indica: PAIS VASCO, DEPARTAMENTO DE ASISTENCIA SOCIAL, EUZKADI, GIZARTE-LAGUNTZA, LAINGOA. Se detalla la expedición a U.R.S.S., el apellido Ibañez Laporta, el nombre Antonio, la edad de 12 años y la fecha de nacimiento del 2 de Diciembre de 1924. Se menciona la naturaleza Orduña y el domicilio de los padres o tutores, Josefa Laporta, en Iparragirre 11 2º Izda de Bilbao. El lugar de residencia es Bilbao. El documento también incluye un sello circular con el número 479 y una firma manuscrita.

PAIS VASCO
DEPARTAMENTO DE
ASISTENCIA SOCIAL

EUZKADI
GIZARTE-LAGUNTZA
LAINGOA

Expedición a U.R.S.S.
Apellidos Ibañez Laporta
Nombre Antonio
Edad 12 años, fecha del nacimiento 2 Diciembre 1924
Naturaleza Orduña
Nombre y domicilio de los padres o tutores Josefa Laporta
Iparragirre 11 2º Izda
Lugar de residencia Bilbao
Familia que se hace cargo del niño

2. Irudia: 1937an euskal haur bati Euzkadiko gizarte-laguntza sailakemandako fitxa hexagonal

Iturria: [Expedición a Inglaterra argazkia]. (d.g.)

<https://errepublikaplaza.wordpress.com/wp-content/uploads/2016/05/chapas-de-identificacioc81n-que-el-gobierno-vasco-confeccionaba-para-tener-localizados-a-todos-los-nincc83os-que-desde-euskadi-parten-hacia-inglaterra.png?w=640>



3. Irudia: North Stoneham-eko kanpamentua, airetik ikusita

Iturria: [North Stoneham-eko kanpamentuaren argazkia, airetik ikusita, BCA'37 UK] (d.g.)

<https://havenseast.org/wp-content/uploads/2020/05/Image-5-AERIAL-North-Stoneham.jpg>



4. Irudia: North Stoneham-eko euskal haurren kanpamentuaren sarrera

Iturria: [North Stoneham-eko kanpamentuaren sarreraren argazkia] (d.g.)

<https://www.in-common.co.uk/2022/05/23/6625/>



5. Irudia: Caerleon-eko Cambria House


Iturria: [Caerleon-eko Cambria House-n argazkia, BCA'37 UK]

<https://www.basquechildren.org/colonies/caerleon>



6. Irudia: Basque Boys AFC futbol taldea eta haren partidu batera joan ahal izateko sarrera
Iturria: The Richard Burton Archives, Swansea University] (d.g.)

<https://nation.cymru/sport/how-a-basque-refugee-football-team-overcame-tragedy-to-take-wales-by-storm/>



7. Irudia: Esku-hartzearen aurkezpena

Iturria: Bumstead, A. (2023). *Esku-hartzearen aurkezpena* [argazkia]



8. Irudia: Esku-hartzeko irakurketa

Iturria: Bumstead, A. (2023). *Esku-hartzeko irakurketa* [argazkia]

Irakurketa: 1937ko haurren ebakuaketa



Eguna iritsi zen familia eta umeentzat. Maiatzaren 21an, 14:30tan, irratan abisua eman zen: *Habana* itsasontzian bidaiatu behar zuten ume oro, haien gurasoekin, Portugaletera hurbildu behar ziren. Ondoren, 500 pertsonako taldeetan, **espediziorako** prestatuta zeuden tren berezietan, trenez joan ziren Portugaletetik Santurtzira. *Habanan* egin zuten bidaia ez zen eroso izan, soilik 1.500 ohe zeudelako 4.000 bat bidaiarirentzat eta, beraz, oheak ume txikientzako utzi ziren. Besteek, berriz, ahal zuten tokian egin zuten lo bi gauetz. Bidaia hau txarra izan zen askorentzat. Umeetako batek hau esan zuen:

*"Itsasoko lehen egun horretan, Bizkaiko Golkoko klima izugarria izan zen eta ia haur guztiek zorabioak jasan zituzten. Nonahi zegoen oka. Vicentek dio: "Bidaia benetako amesgaizto bihurtu zen, **haurtzaroa** kendu zidan. Bat-batean, ez zen umea, eta dena oso zaila iruditu zitzaidan. Gauetik goizera heldu bihurtu nintzen"*

Beste batzuei, ez zitzaion hain txarra iruditu bidaia. Beste haur batek hau esan zuen:

"Ontzietan urtebeteen ere jan gabe geunden janariak eman zizkiguten: lukainak, ogi zuria, eta bete egiteraino jan genuen. Handik ordu betera denok geunden lo egiten."

Pare bat egun pasa zituzten lurruntzian, maiatzaren 23 goizean, 7ak aldera, hainbat umeek "Inglaterra!" oihukatu zuten arte. 8tan, gutxi gora-behera, Southampton-eko portuko 106 kaira iritsi zen *Habana*. Umeak harrituta geratu ziren Southampton-era iritsi zirenean. Haur batek honakoa esan zuen:

*"Gure Inglaterrara helduera: ahaztu ezina, uste gabekoa eta maitagarria izan zen. Southamptonera heltzean mundu miresgarri batetan ginela uste genuen. Etxe bakoitzak bere ortu polita zeukan, ongi zaindua, eta **koroatzea** ospatzeko apaindurik, errege berria zutelako Britainia Handian. Jendea euren eskuoihailekin gu agurtzen. Ezin genuen sinistu ere egin. Benetakoa ote zen mundu hura, gero?"*

9. Irudia: Esku-hartzeko irakurketaren galdetegia

Iturria: Bumstead, A. (2023). *Esku-hartzearen irakurketaren galdetegia* [argazkia]

Galderak

1. Testua irakurri ondoren, azaldu zure hitzetan beltzez dauden hitzak

espedizioa: Bidaia

hautzaroa: Txikia zarenan

koroatzea: Koroa ematea erregeari

2. Zer esan nahi du umeak esaldi honekin? "Gauetik goizera heldu bihurtu nintzen"

Esan zure hitzekin

Bat-batean ez zen umea eta dena oso arlo
iruditu zitzaion.

3. Uste duzu triste edo pozik zeudela umeak joan zirenean? Esan 2 arrazoi triste egoteko eta beste 2 arrazoi pozik egoteko

t- Beraien gurasoetik urrun daudelaiko

t- Beldura zutelako.

P- Salbu daudelaiko garrasotik

P- Ingalaterrara ondo iritsi direlako.

4. Zuk nola pasako zenuke itsasontzian? Eta Ingalaterrara iristean? Hitz egin zure bikotekidearekin eta batera erantzun

Gaizki batalka egingo dutelako. Ondo London-era joateko

10. Irudia: “Gure Gernika”-ren eraketa

Iturria: Bumstead, A. (2023). “Gure Gernika”-ren eraketa [argazkia]




11. Irudia: “Gure Gernika”-ren lehen adibidea

Iturria: Bumstead, A. (2023). “Gure Gernika”-ren lehen adibidea [argazkia]



12. Irudia: “Gure Gernika”-ren bigarren adibidea

Iturria: Bumstead, A. (2023). “Gure Gernika”-ren bigarren adibidea [argazkia]



13. ERANSKINAK

1. Eranskina

Pregunto al mundo civilizado si se puede permitir el exterminio de un pueblo que ha tenido siempre como su ejecutoria más preciada la defensa de su libertad y de la secular democracia que Gernika, con su árbol milenario, ha simbolizado en los siglos.

Quiero creer que las naciones acudirán en auxilio de más de trescientos mil mujeres y niños que vienen a refugiarse a Bilbao. Nada pedimos para los hombres, pues nuestro propósito firme de defender la libertad de nuestro pueblo nos hará afrontar los mayores sacrificios con el ánimo sereno y la conciencia tranquila.

(Arrien, 2014, 54.orr)

2. Eranskina

“El Departamento de Cultura del Gobierno de Euzkadi, velando por los niños que se envían en calidad de refugiados a Francia, y por el prestigio del País Vasco se permite presentar a las señoras profesoras unas pequeñas consideraciones, más que por juzgarlas imprescindibles, dejándose llevar de una ardiente preocupación por que el buen nombre de Euzkadi quede tan alto como merece.

- Las señoras maestras no se pueden olvidar nunca y no olvidarán, que los niños cuyo cuidado se encomienda están fuera de su hogar sin el cariño de sus familiares; y que su abnegación, el amor, las atenciones constantes que de ellas reciben deben sustituir en lo posible, lo que del calor familiar les falta para que los niños sientan, por lo menos, considerablemente atenuada la ausencia de su hogar. Deben oficiar, en resumen, de madres resolviendo dudas de los escolares, aliviando sus preocupaciones y ayudándoles en todo momento y en cuanto necesiten en cualquier circunstancia.
- Tampoco olvidarán que van acogidas en hospitalidad de un país que en los momentos más críticos del nuestro ha sabido acudir en su ayuda y que de él se espera obtener la mayor colaboración si para conseguirla ponemos todo nuestro empeño. Pensemos en nuestros gudaris, que están dando su vida en los campos de batalla. Colaboremos con ellos en esta misión trascendente de captar simpatías en un Estado que tanto puede hacer por nuestro triunfo.
- Hay que procurar respeto absoluto para las tradiciones, costumbres y peculiaridades de Francia y de sus habitantes, y a toda costa dejar bien sentada nuestra reputación de pueblo serio, democrático y respetuoso con los demás, cualidad vasca reconocida hoy por el mundo entero, poniendo de nuestra parte cuando esté para elevar el nombre de Euzkadi. Una disciplina adecuada puede servir para la consecución de este ideal. Sin

embargo, ha de cuidarse de evitar todo castigo violento. Debe resaltarse con nuestros actos la preocupación constante del Gobierno Vasco por la cultura popular.

- Evítese siempre dar espectáculos públicos que puedan dañar lo más mínimo la reputación del país, comportándose, siempre tanto en público cómo en privado, cual corresponde a un pueblo digno. El orden de las clases, casa, calle, jardines, paseos, etc. y el respeto a todo cuanto los rodee debe ser la norma directriz de los niños refugiados. Pensar que el mundo les está mirando, y que todo el mundo vea puede influir en pro y en contra de nuestro prestigio. Las plantas, los animales y las cosas deben ser sagradas para nuestros niños.
- Se prohibirá terminantemente todo canto, grito o manifestación externa que pueda ser representativa de un partido político o sindical. No obstante, sería aceptable el cultivo de cantos, danzas y deportes vascos.
- El comportamiento de las señoras maestras será juzgado con serenidad, y sí a ello dieran motivo, no lo esperamos conociendo las condiciones morales que distinguen a las maestras vascas, serán sancionadas con suspensión de sueldo y empleo, abandonandolos incluso en aquel país, elevando un expediente administrativo con las consecuencias a que hubiera lugar. Espera el Departamento de Cultura del Gobierno de Euzkadi de la cordura y cualidades que adornan a las señoras maestras que pondrán de su parte cuanto les sea posible para el fiel cumplimiento de estas normas.”

3. eranskina; *La Habana* ontzian bidaiatu zuten haurren datu orokorrak:

Adina	Kopurua	Mutilak	Neskak
7	437	274	163
8	407	250	157
9	420	262	158
10	457	274	183
11	486	284	202
12	792	579	215
13	358	194	164
14	409	208	201
15	95	36	59

4. eranskina

“Primera.- El acceso tanto de los niños cómo del personal acompañante se efectuará por la rampa del puente de la Merced, advirtiéndole que el primer tren con destino a Santurtzi saldrá de la estación del muelle a las cinco y media de la tarde, haciéndolo los demás de hora en hora.

Segunda.- Los niños que residan en los pueblos de la provincia o cuenten con medios de transporte podrán dirigirse directamente al muelle de Santurtzi, lugar donde se concentrarán todos los expedicionarios.

Tercera.- Tanto los niños cómo el personal auxiliar y de maestras deberán llevar bien a la vista el distintivo que le acredita el derecho a la marcha.

Cuarta.- También se quiere advertir a los familiares de los niños faciliten la labor de los empleados, haciendo compatible la labor de éstos con sus expansiones familiares.

(Arrien, 2014, 151.or)

7. Eranskina: Cortez apaizak irakurritako testua ekainaren 19an:

“Lamentamos muchísimo que las tropas enemigas están ahora en la ciudad de Bilbao. Es quizá un pequeño consuelo para vosotros el saber que muchos de vuestros amigos y familiares estarán afuera a salvo en Santander y para los que se han quedado en Bilbao no hay, al menos, tanto peligro de bombas. Nosotros, el pueblo británico, que hemos asumido la tarea de cuidar de vosotros mientras estéis en este país, no podemos expresar con demasiada fuerza nuestro dolor y nuestra afinidad con todos vosotros en este momento. Os rogamos a todos que permanezcáis tranquilos y que continuéis con vuestro trabajo y vuestros juegos con normalidad. Podéis confiar en nosotros para que cuidemos de vosotros y para que hagamos todo lo posible por vosotros en nombre de vuestros padres.”

(Arrien, 2014, 192.or)

8. Eranskina

Iturria: *Colonias de Niños Expatriados* (Baiona, 1938.ko otsailak 14). AEJA; *Los Niños Vascos en Inglaterra*, AEJA; Elkarizketak, Prentsako artikulak.

*Kolonien zutabeen, gidoia dutenak izengabeak ala izena ezezaguna dutenak dira. Zenbat umeen zutabeen gidoia duten kolonien ume kopurua ezezaguna ala zalantzazkoa da.

HIRIA	KOLONIA	ZENBAT UME
Almondsbury (Huddersfield)	Basque Children's Home	-
Almondsbury (Huddersfield)	Old Clergy House	20
Arkley (Barnet)	Rowley House	40
Aston (Oxford)	St. Joseph's House	10
Barnes	Old College	20
Berkhamstead	The Culvers	60
Birkenhead	Greenbank, Upton	-
Blackboys (Sussex)	-	19
Birmingham	Fr. Hudson's Homes	100
Bolton (Lancashire)	Wattermillock House	-
Brechfa (Gales)	-	-
Bristol	Basque Children's Home	50
Brixton	Salvation Army Home	40
Brooke (Bucks)	Basque Children's Home	-
Bromley	-	55
Bury	Southall	21
Camberley	Fern Hill, Hawley	80
Cambridge	Basque Hotel, Pampisford	-

Cambridge	Vicarage	29
Cardiff (Gales)	-	50
Caerleon (Gales)	Cambria House	56 (geroantzean 20)
Carmarthenshire (Gales)	-	-
Carshalton (Gales)	-	20
Colchester	-	51
Colwyn Bay (Gales)	Basque Children's Home	20
Darlington	St. Joseph's Home	25
Derby	-	50
Ditton	Nazareth House	20
Dorking	Basque Children's Home	-
Droking	Park Farm	20
Durham	-	61
Dymchurch	-	150
Elford	Elford Hall	-
Escambray	-	11
Evington	Evington Hall	-
Epping	Forest College	-
Fulwood	St. Vicente School	10
Freshwater	Weston Manor	114
Frogatt	Guest House	-
Gainford	St. Peter's House	-
Great Yarmouth	-	50

Guilford	Ardmore House	40
Guisborough	Hutton Hall	-
Hadleigh	Salvation Army	100
Hertford	St. Vincent's Orphanage	13
Helston	-	30
Hexham-on-Tyne	The Larches	-
High Wycombe	-	46
Honiton	-	46
Huddersfield	-	20
Hull	Basque Children's Tome	60
Ipswich	Whereshead Park	102
Keighley	Riddlesdown Sanitarium	120
Kent	St. Mary's	80
Kingsey	Tythrop House	-
Lancaster	Nazareth House	10
Lancing	Beach House	-
Langham	Adelphi Centre	-
Leeds	Hill End Cottage	20
Leicester	Evington	70
Littlehampton	St. Joseph's Convent	25
Liverpool	Catholic Girls' Orphanage	150
Liverpool	Nazareth House	21
London SE	Convent of the Sacred Heart	-

London SE	Honor Oak	61
London W (Hammersmith)	Nazareth House	29
London EC	Clapton Salvation Army	100
London	Kingston	35
London	Theydon Bois, Leach	-
London	Manning Home	20
Maidenhead	Bray Court	50
Manchester	St. Dominic's House	15
Manchester	St. Joseph's Home	50
Manchester	Nazareth House	20
Manchester	Our Lady of Lourdes Home	30
Margate	-	75
Middlesbrough	-	20
Newbury	Baydon Hole Farm	100
Newcastle-on-Tyne	St. Vincent's Home	50
Norfolk	Diss Basque Home	50
Northshields	-	20
Norwich	-	120
Preston	Moorfield Convent	50
Ramsgate	Salvation Army	100
Salford	-	25
Scarborough	Basque Children's Home	85
Shormes	-	18

Southampton	Nazareth House	85
Southampton	Moor Hill House	-
Southampton	Training College	-
Southampton	Rownham's Mount	-
Street	The Grange	40
Surrey	Red Hill	50
Swansea (Gales)	Shetley Park House	80
Thame	Basque Children's Home	50
Tynemouth	-	-
Tunbridge Wells	Rest Hall	63
Tottingham	Holly Mount	50
Tudhoe	St. Mary's Home	120
Wakefield	Old Hospital Park Lodge	65
Walsall	Aldridge Lodge	50
Westcott Park Farm	Basque Children's Home	-
Westcott Park Farm	Park Farm	-
Wigton	-	35
Wolgingham	-	18
Wothing	-	39

9. Eranskina: BCC-ren iritziz, Ingalaterran soilik geratu ahal ziren haien gurasoak honako irizpideen baitan bazeuden:

Iturria: Arrien, G. (2014). *¡Salvad a los niños! Historia del exilio vasco en Gran Bretaña, 1937-1940*. Sabino Arana Fundazioa. 507-508.orr.

Irizpidea	Haur kopurua
Bi gurasoak atzerrian	164
Bi gurasoak kartzelan	24
Aita kartzelan, ama Espainian	135
Aita Espainian, ama kartzelan	1
Aita kartzelan, ama atzerrian	35
Aita atzerrian, ama kartzelan	2
Aita kartzelan, ama hilda	8
Aita hilda, ama kartzelan	1
Aita kartzelan, ama toki ezezagunean	14
Aita toki ezezagunean, ama kartzelan	14
Aita hilda, ama atzerrian	50
Aita atzerrian, ama hilda	13
Aita atzerrian, ama toki ezezagunean	6
Aita toki ezezagunean, ama atzerrian	34
	Guztira: 501

10. Eranskina:

“Amistad-aren lehenengo argitaraldiak esan zuenez, 460 euskal ume zeuden Ingalaterran 1940.ko erdialdean. Eurotatik, 121k lanpostua zeukaten, eta berrogeita bostek euren burua mantentzeko lain irabazten zuten, eta BCC-rentzat gasturik ez. Lanpostua zeukatenek arlo hauetan egiten zuten lan:

Merkataritzan	50ek
Heungintzan	29k

Nekazaritzan	8k
Beste arlo batzuetan (hotel lana, hornitze, meagintzan eta idazkaritzan)	34k

Iturria: Legarreta, D. (1984). The Guernica Generation. Reno: University of Nevada press. 250.or

11. Eranskina

Iturria: Heziberri (2020). Oinarrizko hezkuntza curriculum. Hemendik eskuratua:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_dec_curriculares/eu_def/adjun_tos/OH_curriculumosoa.pdf

Oinarrizko zehar-konpetentziak	- <u>Hitzezko komunikaziorako konpetentzia</u> - idatziz ulertzea eta jarioz, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea testuak (Heziberri, 2020, 31.or.). - <u>Hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia</u> - Hitzik gabeko kode komunikatiboen erabilera (keinuak, gorputz mugimenduak, etab.) - <u>Elkarbizitzarako konpetentzia</u> - <u>Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia</u> - 1. Ideiak edo proiektuak sortzea eta/edo nork bere gain hartzea, proiektuen plangintza egitea eta haien bideragarritasuna aztertzea (Heziberri, 2020, 21.or.). - 2. Planifikatutako ekintzak gauzatzea eta, beharrezkoa baldin bada, haiek doitzea (Heziberri, 2020, 21.or.). - 3. Egindako ekintzak ebaluatzea, haien berri ematea eta hobetzeko proposamenak egitea (Heziberri, 2020, 21.or.). - <u>Norbera izaten ikasteko konpetentzia</u>
Diziplina barneko konpetentziak	- <u>Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia</u> - (Esparru zehatz bateko) hitzezko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea eta jarrera kritikoaz balioestea, helburu

	pertsonalak, sozialak eta akademikoak erdiesteko (Heziberri, 2020, 59.or.). - Literatura-testuak interpretatzea eta balioestea, testuen esanahia modu partekatuan eraikita; eta, horren bidez, mundua ulertzea (Heziberri, 2020, 59.or.). - Gure gizartearen kultura-aniztasuna aitortzea eta horren bidez elkarreragiteko zubiak sortzeko gaitasuna garatzea - <u>Matematikarako konpetentzia orokorrak garatzea</u> - <u>Konpetentzia sozial eta zibikoa</u> - Norberaren gizartea ezagutzea, eta bereziki haren iraganeko eta egungo eraketa, antolamendua eta funtzionamendua (Heziberri, 2020, 25.or.). - Bizi duten mundua ulertzeko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrera eskuratzea (Heziberri, 2020, 25.or.). - <u>Arterako konpetentzia</u> - Arte-produktuak era pertsonal eta arrazoituan sortzea hainbat egoera eta biziesparrutan, emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatzeko eta komunikatzeko (Heziberri, 2020. 26.or.). - Dagozkien denboran eta kulturen interpretatzea arte-adierazpenak eta -ekoizpenak, eta horietan dauden funtzioak eta erabilerak aztertzea eta bereiztea, pertsonen bizitzan duten esanahia eta eragina ulertzeko (Heziberri, 2020. 26.or.).
--	---